KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2024 / Abendua / 354. zenbakia

www.oñati.eus

Ironman batean Espainiako inoizko bigarren markarik onena ezarri du Mikel Ugartek

Elikadura Jardunaldiak
Elikagaien ekoizpena eta gure osasunean duten eragina aztergai abenduan

Emakumion Etxia
Herritarren iritziak eta zalantzak ezagutzeko kanpaina egingo da

07:37:54

354. zkia
2024ko abendua

'Jaten dugunak egiten gaitu pertsona osasuntsu, edo ez'

➔ **Tokiko elikadura jasangarria** da gaurko gizarteak daukan erronka handietako bat, eta horren inguruan gogoeta egiteko **jardunaldiak** antolatu dituzte herriko hainbat eragilek, Udalarekin batera

➔ Herritarrak saretzea eta **Elikadura Mahaia** sortzea da asmoa

▲ **ELIKADURA JARDUNALDIAK** antolatu dituzten herriko eragileetako batzuk eta udal arduradunak, ekimenaren aurkezpen ekitaldian

Gizarte-erronkez beterik dago mundua, askotariko erronkak dira, tokikotik zein eskala zabalagotik erantzun beharrekoak. Horien artean dago **tokiko elikadura jasangarria**rena. Gure egunerokoan berebiziko garrantzia du elikadurak, asko baldintzatzen du gu garena, uste baino gehiago, eta gaiak baditu landu daitezkeen hainbat ertz eta erpin". Halaxe aurkeztu dituzte hilaren 11, 17 eta 18an egingo diren Elikadura Jardunaldiak.

"Elikagaien ekoizpenetik hasi eta gure platerera heltzen diren arte bide oso bat dago. Eta garrantzitsua da bide horretako urrats bakoitza ahalik eta era kontzienteenean egitea", ohartarazi dute. "Gaur-gaurkoz, lehen sektorea ez dago momentu onenean, besteak beste, gizartean nagusi den kontsumo ereduarengatik eta horrek dituen eraginengatik, hala nola, ekoizleei lan baldintza duinak bermatzeko edo belaunaldi berriak sektorera erakartzeko zailtasunengatik. Beharrezkoa da formula berriak lantzea, eta geroz eta gehiago dira helburu horrekin sortu diren proiektuak, baina elikagaiak gure bizitzaren eta egunerokoaren erdigunean dauden moduan, garrantzitsua da halako ekimenak erdigunera ekartzea".

ELIKADURA ETA OSASUNA

"Bestetik, ukatzerik ez dago elikadura zuzenki dagoela lotuta gure osasunarekin. Jaten dugunak egiten gaitu, eta uste baino gehiago baldintzatzen edo erabakitzen du garena", gaineratu dute jardunaldien sustatzaileek. "Horregatik da garrantzitsua elikadura osasuntsua bultzatzea. Gaur egun, osasuna gizarteko kezka nagusienen artean dagoen honetan, funtsezkoa da osasunaren eta elikaduraren arteko lotura estuaz jardutea. Jaten dugunak egiten gaitu pertsona osasuntsu, edo ez".

Horregatik, **Tokiko elikadura jasangarria**ren erronka ipini nahi

Ukatzerik ez dago elikadura zuzenki loturik dagoela gure osasunarekin. Horregatik, urrats berria egiteko unea dela uste dugu, hausnargaiak herriratzekoa, sentsibilizazioan eragitekoa, saretzekoa, zerbait sortzekoa....

dute mahai gainean. "Erronka honek baditu hainbat erronka bere barruan. Guztiak dira garrantzitsuak. Tokikoa izatea, agroekologikoa, osasuntsua, duina, kontzientziaz landurikoa, iraunkorra… Esan moduan, askotarikoak dira erronkak, eta garrantzitsua da horien guztien inguruan gogoeta egitea".

URRATSAK EMATEKO UNEA

Beraien aletxoa jarri gura dute horretan. Hausnarketa eta erronka horiekin batu dira hainbat herritar azken hilabeteetan Oñatiko Udalaren bide-laguntzarekin. Eta uste dute urrats berria egiteko unea dela, hausnargaiak herriratzekoa, sentsibilizazioan eragitekoa, saretzekoa, zerbait sortzekoa…

Bide horretan, elikaduraren bueltako jardunaldiak antolatu dituzte abendurako. Zehazki, hiru hitzaldi edo mahai-inguru antolatu dituzte, bi astetan banatuta. (Ikusi egitaraua ondoko taulan). Saio guztiak 18:30etan izango dira, kultur etxean. Irekiak eta doakoak izango dira ekitaldi guztiak.

HITZALDI ETA MAHAI-INGURUAK

ABENDUAK 11, ASTEAZKENA, KULTUR ETXEAN, 18:30
- HITZALDIA: '**Agroekologia eta etxeko ortua**'
- HIZLARIA: Jakoba Errekondo Saltsamendi, agronomo eta paisajista.

ABENDUAK 17, ASTEARTEA, KULTUR ETXEAN, 18:30
- HITZALDIA: '**Kapazak al gara garaian garaiko elikagaiekin bizitzeko? Garaian garaikoaren garrantzia eta trantsiziorako alternatibak**'
- HIZLARIAK: Amaia Diaz de Monasterioguren Osinaga eta Andrea Larrea Garcia dietista eta nutrizionista oñatiarrak

ABENDUAK 18, ASTEAZKENA, KULTUR ETXEAN, 18:30
- MAHAI-INGURUA: '**Tokiko elikadura jasangarria. Gaurko eta etorkizuneko erronkak**'
- HIZLARIAK: Bergarako ***Ereindajan*** denda-topaguneko Ainhoa Narbaiza Irizar, ***Eskubaratz*** ekoizle taldeko Asier Garai Zabaleta, eta Oñatiko ***Mauxka*** jatetxeko sukaldari Agus Otxoa-Aizpurua Calvo.

JAKOBA ERREKONDO
agronomo eta paisajista

AMAIA DIAZ DE MONASTERIOGUREN
dietista eta nutrizionista

ANDREA LARREA
dietista eta nutrizionista

AGUS OTXOA-AIZPURUA
sukaldaria

▲ **HIZLARIAK**
Lerro hauen gainean aipatutakoez gain, kontsumo-eredu hurbileko eta sozialki jusutak sustatzen dituen ***Ereindajan*** (Bergara) denda-topaguneko, eta ekoizpen agroekologikoaren aldeko apustu irmoa egiten duen ***Eskubaratz*** (Durangaldea) ekoizle taldeko ordezkariak ere izango ditugu jardunaldietan

Oñatiko Elikadura Mahaia eratuko da

Elikadura Jardunaldiak antolatu dituzten herriko eragileen asmoa da herritarrak saretzea eta gai hauen inguruan gogoeta eta neurriak jartzeko egitura edo gune egonkor bat sortzea. "Hasia dugun bide hau ez da jardunaldiekin bukatzen. Emango diren pauso berrien aurrekoa izango da, eta ez edonolakoa, pauso esanguratsuak aurreikusten baitira 2025era begira. Asmoa da urtarrilean tokiko elikadura jasangarriaren bueltan talde egonkor bat sortzea, irekia, iraunkorra, bide bereko urratsekin jarrai dezagun, egoerak hala eskatzen du eta. Oñatiko **Elikadura Mahaia** sortuko dugu. Aurrerago emango ditugu horren inguruko xehetasunak".

Gaiak duen garrantzia ikusirik, herritar guztiak animatu nahi dituzte hitzaldietan eta antolatuko diren ekimenetan parte hartzera.

'Zer da Emakumion Etxia?'

Herritarren **iritziak** eta **zalantzak** jasotzeko kanpaina egingo da abenduaren 9tik urtarrilaren 7ra

Etxia oñatiarrengana eta oñatiarrak Etxiarengana hurbiltzea da helburua

➔ Herritarrok Emakumion Etxiari buruz dauzkaten iritziak eta zalantzak jasotzeko kanpaina egingo da datozen asteetan. Postontziak eta erantzun-orriak jarriko dira herriko hainbat lekutan, honako galderarekin: "**Zer da Emakumion Etxia? Bota zure iritzia edo zalantza**"



Pasa den urrian amaitu zen '**Oñatiko Emakumion Etxia Eraikitzen**' parte-hartze prozesua, baina, **Etxiak** ateak ireki aurretik lan handia dago egiteko. Horregatik, prozesuan parte hartu duten herriko hainbat emakume lantaldetan antolatu dira, bakoitzak bere aletxoa jarri eta **Etxia** denon artean eraikitzeko.

Talde horietako bat **Zubigileena** da; hau da, **Etxia** eta herritarren arteko zubia eraiki eta elikatuko dutenena. Eta, hain zuzen, **zubigileen** partetik dator orain aurkezten dugun kanpaina hau. Herritarrok **Emakumion Etxia**ri buruz dauzkagun iritziak eta zalantzak jaso nahi dituzte, **Etxia** oñatiarrengana eta oñatiarrak **Etxia**rengana hurbiltzeko asmoz.

NOLA EMAN IRITZIA

Herriko hainbat lekutan postontziak eta erantzun-orriak ipiniko dituzte honako galderarekin: 'Zer da Emakumion Etxia? Bota zure iritzia edo zalantza'. Nork beretik hitz eginda, herritarrok etxeari buruz dauzkagun iritziak entzutea da helburua.

Postontziak honako leku hauetan jarriko dira: ***HAZ, kiroldegia, Eltziako topagunea, Gaztelekua, kultur etxea*** eta ***Emakumion Etxia*** bera. Epea: abenduaren 9tik urtarrilaren 7ra. Erantzunak anonimoak badira ere, eskertuko lukete erantzun-orrietan generoa eta adina adieraztea.

Behin epea amaituta, oñatiarrok etxeari buruz dauzkagun iritziak eta zalantzak jakingo dituzte, eta horiek argitzeko pausuak eman ahal izango dituzte. Beraz, animatu eta parte hartu! (Informazioa: *www.onati.eus/eu/emakumion-etxia*).

GABONAK OPARIZ
BETETA DATOZ!

ZUNTZA 300Mb
+ MUGIKORRA 35GB

34,90 €/HIL
BEZa barne

Zatoz **LIZKER INFORMATIKA** dendara, kontrata ezazu zuntza + mugikor linea bat eta **aukeratu zuretzat opari hauetako bat**

PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:

LIZKER INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA

TLF: 943 090 600

BEZa barne Hau kontratatzen baduzu balio du eskaintza honek: 300 Mb-eko zuntza + 35 Gbko mugikor-linea dei mugagabeekin hilean 34,90 €-an. 229,90 €-ko deskontua instalazioan, 3 hilabeteko iraupen-konpromisoarekin. 5G abiadura, estaldurari eta 5G terminalari lotuta. Ikusi gaineroko baldintzak hemen: www.masmovil.es. Promozio honek 2024ko abenduaren 31 arte balio du.

MASMOVIL
AURREZTU, ETA KITO

354. zkia
2024ko abendua

Usako inguruan hainbat esku-hartze egingo ditu Udalak, oinezkoen bideak sustatu eta ingurune naturala aberasteko

> Usakora doazen bidezidorrak hobetu eta belardirako sarbide berria egokituko da zuzenean Exibai baserritik , besteak beste.

> Uda sasoirako lanak amaituta egotea aurreikusten da.



▼ Goiko irudian Usakoko aisialdi gunera iristeko egun dauden lau bidezidorrak ikusten dira.
► Ezkerreko planoan ikus daiteke Udalak erosi duen Muñoa lursaila gurutzatuz Exibai baserriko zubitik zuzenean belardira iristeko egokituko den bidezidor berria. Honen inguruan haritzak eta altzak landatuko dira

Turismo jasangarria sustatzera bideratutako Europako ***Next Generation*** funtsetik jasotako dirulaguntza baliatuz, Usakoko aisialdi gunean hainbat esku-hartze egingo ditu Udalak, oinezkoen bideak sustatu eta ingurune naturala aberastu eta zaintzeko asmoz.

Udalak eskatuta Izarraizpe Lorezaintza SLL enpresak idatzitako proiektuaren arabera, maila ezberdineko esku-hartzeak egitea aurreikusten da. Alde batetik, Usakora iristeko dauden bidezidorrak garbitu, txukundu eta sendotu egingo dira, ibilbide seguruagoak bilakatuz. Hala, zenbait gunetan todo-uno trinkotua botako da zoruan, putzuak sortzen diren lekuetan urak batzeko azpiegitura lanak egingo dira, eta errekara erortzeko arriskua dagoen guneetan segurtasun-hesi jarraia ipintzea aurreikusten da.

BIDEZIDOR BERRIA

Gaur egun Usakora iristeko lau bidezidor daude: Garagaltza auzotik doana, Zuazolako zubitik doan bidea, Usako baserri ondotik doan hormigoizko pasabide estua, eta Exibai baserri ondoko zubia gurutzatuta, Garagaltzatik datorrenarekin bat egiten duena, ezkerreko airetiko argazkian ikus daitekeen moduan.

Eta orain onartu berri den

▲ Garagaltzatik doan bidean babes sarea aldatuko da eta tornu biratzailea ere aldatuko da. Komunaren etxola alertze egurrez estaliko da, inguruan hobeto integratzeko.

◄ Usakora doazen bidezidorren azpiegiturak garbitu eta sendotu egingo dira, eta babes-hesiak ipiniko dituzte zenbait gunetan, ibilbide seguruagoak bihurtuz.

Next Generation funtsetatik iritsitako dirulaguntzarekin egingo da esku hartzea. Proiektuak 100.000 euroko aurrekontua du

proiektuaren arabera, Exibai aldetik bidezidor berria egokituko da. Horretarako, Udalak Usako-Muñoa deritzon lursaila (4.000m²) erosi du, eta ezkerreko planoan erakusten den moduan, partzela hori gurutzatuz, sarbide motzagoa egokituko da Usakoko belardira.

Bidezidorra egokitzeaz gain, lursail hori garbitu eta landaketa berriak egingo dira; harizti baso mistoa alde batean, eta haltzadi-sahats baso atlantiarra beste aldean.

Presa gainean dagoen belardi edo atseden guneari dagokionez, sarrerako burnizko tornu biratzailea eta babes sarea aldatuko da, eta komunaren etxola alertze egurrez estaliko da, inguruan hobeto integratuz. Gainerakoan, ez da aparteko esku-hartzerik egingo atseden gunean. Mahaiak eta jesarlekuak jartzeko aukera aztertu zen, baina Udalak baztertu egin du.

Proiektuak 100.000 euroko aurrekontua du eta uda sasoirako amaituta egotea espero dute udal arduradunek.

Torreauzo eta Usako arteko bidegorria ere udarako

Torreauzo eta Usako artean eraikiko den bidegorria ere udaldirako prest egotea da Udalaren nahia. Azaroaren 28ko osoko bilkuran bidegorria eraiki ahal izateko desjabetu beharreko hiru lursailak erostea onartu zen, jabeekin adostutako prezioan, eta, beraz, datozen asteetan lanak lizitaziora aterako ditu Udalak 662.700 euroko (BEZ barik) aurrekontuarekin. Proiektu honetarako 569.000 euroko laguntza jaso du Udalak Next funtsetik.

AYESTARAN
ARAIKUNTZAK S.L.
AITA LIZARRALDE KALEA 8, BEHEA, OÑATI
TLF:943716454
iayestaran.com

obra berria
eraberritzeak
etxebizitzen eraberritzeak
igogailuak, kota "0" lanak
fatxada eta teilatuak

Adineko pertsonei laguntzeko boluntario sarea osatu nahi du Gurutze Gorriak

Debagoieneko Gurutze Gorriak bakardadean bizi diren gero eta adineko pertsona gehiago hauteman ditu, bizikalitateari eusteko zailtasunak dituztenak. Horregatik, adinekoei laguntzeko boluntariotza proiektua indartzea erabaki du Gurutze Gorriaren eskualdeko batzordeak. Bakarrik bizi diren adineko pertsona horiei hilean behin, pare bat orduz, bisitak egitea da helburua, eta, horretarako, egitasmo solidario honetan laguntzeko dei zabala egin nahi diete eskualdeko herritarrei. Ez da prestakuntza berezirik behar; nahikoa da enpatia eta jarrera ona edukitzea. Boluntario bakoitzak eskainiko duen denbora ere aldakorra izan daiteke, bakoitzaren disponibilitatearen araberakoa.

Indibidualismoa eta bakardadea nagusitzen ari diren gizarte honetan inoiz baino beharrezkoagoa da lankidetzarako eta elkartasunerako sare komunitarioak indartzea eta 'auzo-laguntza' bezalako kontzeptuei protagonismoa ematea.

Programa honetan laguntzeko prest baldin bazaude edo informazio gehiago nahi baduzu: 943765576 / ***altodeba@cruzroja.es***

'ZORTEA OÑATIKO DENDETAN DAGO!' kanpaina jarri du abian TXANDAk

'Zortea Oñatiko dendetan dago!' lelopean, bezeroen fideltasuna saritzea eta tokiko saltokietan erosketak sustatzea helburu duen kanpaina jarri du abian TXANDA Oñatiko merkatarien elkarteak, urtea ilusioz eta sari ugari banatuz agurtzeko.

Hala, abenduaren 2tik urtarrilaren 5era bitartean kanpainarekin bat egin duten saltokiek 100.000 papertxo banatuko dituzte euren bezeroen artean, eta zenbaki horiek Erregeetako Loteriaren zozketan sartuko dira. Denera, 5.000 euro banatuko dira saritan, honela banatuta:

- 1. SARIA: **1.000 €** (Erregeetako Loteriako lehen sariko zenbakiarekin bat datorren boletoarentzat).
- 2. SARIA: **600 €** (Erregeetako Loteriako bigarren sariko zenbakiarekin bat datorren boletoarentzat).
- 3. SARIA: **400 €** (Erregeetako Loteriako hirugarren sariko zenbakiarekin bat datorren boletoarentzat)
- **30 €**-ko 99 SARI (Erregeetako Loteriako lehen sariko zenbakiaren azken 3 digitoekin bat datozen zenbakiak dituzten boletoentzat.

Sariak emateko ekitaldia urtarrilaren 11n izango da, Santa Ana antzokian (13:30). Sariak jaso ahal izateko, saridunek saritutako papertxoak aurkeztu beharko dituzte, papertxoak jaso ziren saltokiko zigilua dutela.

5.000 euro banatuko ditu saritan: 1.000, 600 eta 400 euroko sari bana, eta 30 euroko beste 99 sari

Enpresen transmisioa eta jarraipena helburu

Debagoieneko BAILARA Enpresa Elkarteak antolatuta, 'Enpresen Transmisioa eta Jarraipena' jardunaldia egin zen Oñatin, azaroaren 28an. BAILARAk egindako ikerketa baten arabera, erretiro prozesuek, ondorengotzarik ezak, jabeen nekeak eta abarrek eraginda, gero eta gehiago omen dira itxi beharrean aurkitzen diren enpresak gure inguruan, horrek dakarrenarekin: enplegu eta aberastasun ekonomiko nahiz sozialaren galera. Horren aurrean, Gipuzkoako Merkataritza Ganberaren 'Enpresen Jarraipenerako Zerbitzua' eta Debagoieneko Garapen Agentziaren 'Geroa Bermatuz' ekimenak aurkeztu zituzten. Biek ala biek transmisio prozesuak garaiz planifikatzearen garrantzia azpimarratu zuten behin eta berriz, eta eskaintzen duten laguntza/aholkularitza prozesuak konfidentzialtasun osoz egiten dituztela. 'Mecanizados de precisión Belmek' enpresaren kasu praktiko eta arrakastatsua ere azaldu zuten.

Udaletxeko areto nagusian egin zen saioa

Enpresen transmisio prozesuak denboraz planifikatzearen garrantzia azpimarratu zuten Merkataritza Ganbera eta Debagoieneko Garapen Agentziako adituek

Gotzon Telleria presoaren egoera salatzeko ibilaldia egingo da Oñatin abenduaren 21ean

» Preso oñatiarrak ELA gaitz sendaezina dauka. Herriko hainbat mediku, psikiatra, fisioterapeuta eta gizarte langilek beraien atxikimendua adierazi dute

Atxikimendua adierazi duten osasun arloko profesionaletako batzuk

Oñatiko SARE plataformak deituta, Gotzon Telleriaren egoera salatzeko ekitaldia egingo da abenduaren 21ean, '***Gotzon etxera ekarri behar dugu, eta oinez gainera***' lelopean.

Preso oñatiarrak ELA (alboko esklerosi amiotrofikoa) gaixotasun sendaezina dauka, eta gaitz hori ezin da behar bezala artatu kartzelan. Horregatik, Gotzon ahalik eta azkarren aska dezatela eskatzeko antolatu da abenduaren 21eko ibilaldia. "Ez dugu Gotzon kartzelatik gurpil-aulkian ateratzen ikusi nahi", adierazi dute SARE plataformatik.

Herriko hainbat mediku, psikiatra, fisioterapeuta eta gizarte langilek ere bat egin dute eskaerarekin, eta dei egiten diete herritarrei mobilizazioan parte hartzera.

Gotzon 2017an atxilotu zuten Mexikon, urte luzez erbesteratuta egon ostean. Egun 68 urte ditu eta Zaballako espetxean dago, 46 urteko zigorra betetzen.

Amiantoari buruzko hitzaldia Lagun Leku elkartean

Lagun Leku elkarteak antolatuta, '***Amiantoa —hiltzaile isila—. Arazoa hor dago*** / ***Amianto —mata en silencio—. El problema existe***' hitzaldia egongo da abenduaren 11n, Lagun Leku elkartearen lokalean (18:00). Jesus Uzkudun (ASVIAMIE / Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkartea) sindikalista historikoa izango da hizlaria.

EH Bilduren III. kongresua abian

EH Bilduk irailaren 21ean abiatu zuen III. Kongresua eztabaida fasean da, eta helburu horri helduta, Mario Zubiaga Oñatiko EH Bilduren Herri Batzarrean izan zen azaroaren 16an, datozen urteetarako bide-orria jasotzen duen ponentzia aurkezten. Abenduaren 19-21 artean bozkatuko dira ekarpenak eta zuzenketak, eta otsailean burutuko da prozesua Mahai Politikoko ordezkariak aukeratuta.

'Kanpora' jaialdirako sarrerak salgai

Fan Hemendik taldeak antolatuta, KANPORA JAIALDIA egingo da otsailaren 22an. Gaztetxian (19:00) hasiko da '***Azken Erromantikoen***' pintxadarekin (dohainik), eta 22:00etan Gaztelekuan ***Añube***, ***The Lio*** eta ***Dirty Old Gasteiz*** taldeak ariko dira (10€ aurrez), *onatikultura.sacatuentrada.es/eu* webgunean.

ARANBURU ALTZARIAK
Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73
ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK
LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK

NII moda
MODA BEREZIA
Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

'Eredu zaretelako'

> Oñatiko odol emaileen elkarteak aitortza egin die hamar herritarri beraien fideltasuna eta eskuzabaltasuna eskertzeko

AITORTZA JASO DUTEN EMAILEAK

100 ODOL EMATE
- Jose Antonio Pardo Areosa

75 ODOL EMATE
- Juan Jose Ugarte Olalde

60 ODOL EMANALDI
- Beatriz Igartua Murua

50 ODOL EMATE
- Juan Antonio Martin Dorado

40 ODOL EMATE
- Arantzazu Murua Kortabarria
- Mª Carmen Urzelai Ezkibel

25 ODOL EMATE
- Xabier Agirre Agiriano
- Juana Agirre Beitia
- Saioa Etxaniz Murguzur
- Ana Maria Zabarte Guridi

(*) Emakumeek urtean 3 aldiz eman dezakete gehienez; gizonezkoak 4.

Jakina da odol emaileak ez direla odola ematera joaten omenaldi edo aitortzak jasotzearren, baina Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak urtero egin ohi du 20, 50, 75 edo 100 aldiz (emakumeen kasuan 40, 60 edo 80) aldiz odola ematera iristen diren herritarrei esker ona emateko ekitalditxoa. Lehen, eskualdeka egiten zen eta azken urteotan herrika egiten da, eta aurtengoa azaroko ateraldiarekin batera egin zuen Oñatiko delegazioak. Goiko argazkiko hamar lagunek dagokien agiri edo ikurra jaso zuten eta luntx goxo baten inguruan elkartu ziren ondoren.

Oñatiko emaileen elkarteko ordezkari Asun Leibarrek eskerrak eman zizkien erakusten duten konpromiso eta fideltasunagatik. "Eredu zarete herriarentzat, gizartearentzat eta baita gainerako emaileentzat ere". "Odola ematea ekintza erraza, segurua eta altruista da", gaineratu zuen Leibarrek, "baina konpromisoa eskatzen du behin eta berriz. Odol beharra dago eta norbaitek eman behar du. Kate hau ezin da eten. Zuek egiten duzuen keinu horren bidez herritar askoren bizitza salbatzen da, eta beste askoren osasuna hobetzen. Beraz, ondo merezitako aitortza da, zalantza barik".

ERANTZUKIZUN PARTEKATUA IZAN BEHAR DA ODOLA EMATEA

Leibarrek gogorarazi zuen 4tik 3 pertsonek odolaren osagairen bat beharko dugula gure bizitzan zehar eta, beraz, herritarrak sentsibilizatzen jarraitu beharra dagoela, batez ere gazteak. "Erantzukizun partekatua izan behar da odola ematea. Odola jasotzea eskubidea bada, konpromisoa eta erantzukizuna behar-beharrezkoak dira gizartearen aldetik". Gaur egun 475 odol emaile aktibo daude Oñatin.

» JOSE ANTONIO PARDO AREOSA

➤ 100 ODOL EMATE

Barakaldon sortua, Cruces-en hasi zen odola ematen, 20 urte pasatxorekin, eta Oñatira etorri zenean hemengo elkartean jarraitu zuen. Oso konstantea izan da eta, dagoeneko, 100 aldiz ematera iritsi da, eta bi urte pasatxo geratzen zaizkio oraindik. "70 urte betetakoan, kito, esan didate medikuek. Gazteak etorri behar dutela erreleboa ematera." Eta Jose Antoniok dei egiten die gazteei odola ematera. "Gu bezain konstanteak ez izanda ere, hobe da noizean behin etortzea, inoiz ez etortzea baino. Bihar edo etzi edonork izan dezake odol premia eta, jakina, norbaitek eman beharko du. Odola egunero-egunero behar da ebakuntzak egiteko..., beraz gomendagarria da gazteak animatzea".

» BEATRIZ IGARTUA MURUA

➤ 60 ODOL EMATE

Gaztetan, 22 urterekin hasi zen Beatriz odola ematen, eta, haurdunaldietan-eta salbu, oso konstantea izan da eta, dagoneko, 65 aldiz eman du odola. "Lau hilabetetik behin ondo eramaten da. Ez da hainbeste". Gerora, etxean bertan egokitu zaio odol premia zenbatekoa den ikustea. "Aita gaixotu zenean 3 poltsa sartu zizkioten arratsalde batean, eta nik urte bat behar dut hori emateko. Gero, alabak ere behar izan du birritan. Beraz, garbi dago emaile asko behar direla eguneroko odol premia asetzeko. Gaur egun, gainera, dena ondo antolatuta dago; Internetetik hartu zeike txanda, eta, ni, azkenengo aldiz 30 minutuan kanpoan nintzen, medikutik pasatu eta odola eman ostean".

Pili Irazabali, esker onez



Azaroko ekitaldian egoterik izan ez bazuen ere, Oñatiko Odol Emaileen Elkarteko bere kide eta lagunek esker oneko hitzak esan nahi izan zituzten Pili Irazabalentzat.

Pilik 40 urtetik gora daramatza lanean Oñatiko delegazioan, bera izan da herriko odol-emaileen taldeko koordinatzaile eta sustatzaile nagusia azken urte luzeetan, eta aurten Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak 60 urte bete dituela kontuan hartuz, albora egin eta lekukoa beste pertsona batzuei pasatzeko unea dela erabaki du. "Publikoki eskertu nahi diogu urte hauetan guztietan egin duen lan bikaina", adierazi zuen Asun Leibarrek, gainerako taldekideen izenean. "Hiru izan dira Piliren helburuak urte hauetan zehar: herritarrak sentsibilizatzea odola ematearen garrantziaz, odol emaile berriak erakartzea, eta dagoeneko emaile direnak mimatzea". Pilik laguntzen jarraituko du, baina bigarren lerro batetik, koordinazio eta ardura lanak gazteagoen esku utziz.

GOTATANTA.EUS

Gogoratu, uztailaz geroztik Internet bidez har daitekeela Oñatin hilean behin egiten den odol ateraldirako txanda edo hitzordua, *https://gotatanta.eus* webgunean (bezpera arte). Oñatin, dagoeneko emaileen %70ek erabiltzen omen du bide hau. Bestela, lehen bezala, telefonoz (943007884) ere har daiteke, egunean bertan. Hurrengo ateraldia **abenduaren 20an** izango da.

Finaletik puntu bakarrera geratu da Maider Arregi

> Penaz, baina gustura zegoen, hala ere, oñatiarra, Euskal Herriko txapelketarako txartela eskuratuta

Arrasateko finalerdian aritu zen seikotea

Penaz geratu ginen, bai gu, eta, batez ere, Maider bera, jakina, abenduaren 14an Donostian jokatuko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean sartzetik puntu bakar batera geratu zela jakitean. Halaxe aitortu zigun bertsolariak berak, abenduaren 1ean Arrasateko Uarkape pilotalekuan jokatu zen azken finalerdiko saioa amaitu eta oholtzatik jaitsi berritan. Maiderrek 511 puntu lortu zituen, finaleko zortzikotea osatuko duen Aner Peritz 'Euskitze'k baino bat gutxiago.

Saio ederra osatu zuen Txinparta bertso eskolako ordezkariak Arrasaten. Guk bezala, behetik gorako saioa egin zuela uste zuen berak ere. "Bai, lehen ofizioan, zortziko nagusian, pittin bat kanpo ikusi dut neure burua. Agian pilotalekua hain betea ikusteak eragin didan zirraragatik-edo; baina gainerako bertsoaldietan egindakoarekin gustura geratu naiz". Eta hala da. Bakarkako lanean, esaterako, berak jaso zuen punturik gehien, eta 6 puntuko motzean ere berea izan zen puntuaziorik altuena, saioa irabazi zuen Oihana Iguaranekin berdinduta.

Tamalez, Iguaranek azken agurrean esan zuen bezala, 'Hainbeste sormen ezin da zortzi aulkitan eseri', eta oñatiarra final handiaren ate-atean geratu zen, puntu bakar bategatik. Pozik zegoen, hala ere, egindako txapelketarekin. "Lan handia egin dugu txapelketa prestatzen, eta finalerdietan sartzearekin oso pozik nengoen jada, Euskal Herriko txapelketarako sailkapena lortuta, eta Gipuzkoako txapelketako finalean sartzea opari bat izango zen. Ea hurrengoan".

Catalana Occidente
Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak
Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:
Heriotza · Istripuak · Etxebizitza
Autoak · Ontziak · Aurrezkia
Bizitza · Osasuna · Laborantza
Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

PINTURAS
URBIA
MARGOAK
Ultzegin kalea, 3 - Behea B ● 652 71 08 37

Landalur partzelak digitalizatzen jarraituko du Udalak

→ Lehen hiru poligonoetako sailen mugak digitalizatu ostean, 4 eta 5 guneetako mugak GPS bidez jasotzeko lanak lizitaziora atera ditu

Iazko abenduan aurreratu genuen moduan, Udalak herriko landalur izaerako lursail guztien mugaketa digitalki jasotzeko asmoa du. Urtarrilean hasi zen zeregin horretan eta, zehazki, Oñatiko landa katastroan dauden 28 poligonoetatik lehenengo hiruretako partzelen mugaketa egin da jada, Geograma enpresa eta lursail bakoitzaren jabeen laguntzarekin. Dagoeneko banatu zaie 1, 2 eta 3 poligonoetako lursailen titularrei dagozkien partzelen muga eta mugarrien planoak nahiz koordenadak zehazten dituzten liburuxkak. Erreklamazioren bat egin nahi dutenek abenduaren 12ra arteko epea dute. Argibideetarako, Geograma (954 041 064) enpresara jo daiteke.Lehenengo hiru poligonoetako lursailen mugaketa digitalak 116.030 euroko kostua izan du Udalarentzat, eta Foru Aldundiak 25.000 euroko (%21,6) laguntza eman du, erdia diruz laguntzeko konpromisoa hartu bazuen ere, udaleko Auzoak eta Landa Garapena saileko arduradunek azaldu dutenez. Lurjabeek ez dute ezer ordaintzen.



Larraña eta Olabarrietako sailak daude 4-5 poligonoetan

BIGARREN FASEA

Esan bezala, Udalak herriko landalur izaerako partzela guztiak digitalizatzeko asmoa du eta, dagoeneko, 4 eta 5 poligonoetako lursailen mugak GPS bidez geo-erreferentziatuko dituen enpresa kontratatzeko lizitazioa jarri du abian, 99.161 euroko (BEZ barne) aurrekontuarekin. Bigarren fase honetarako ere Aldundiak %20ko laguntza eman du, "agindutako %50etik oso urruti", udal arduradunek adierazi dutenez. Bigarren faseko 4 eta 5 poligonoetan Larraña eta Olabarrieta aldeko 860 bat partzela daude (734 Ha., gutxi gora behera).

HELBURUAK

Garai batean lursailak baserriei lotuta egon izan dira, baina azken bi belaunaldietan, bereziki, informazio asko galdu da bai terreno horiekiko eta baita lursailen mugekiko ere, eta hori arazo bihurtu ohi da ez bakarrik titular edo jabeentzat, baita administrazio publikoaren kudeaketari lotuta ere. Daukagun informazioa aspaldiko eskrituretatik dator, baina leku-izenak ere aldatuz joan direnez, askotan zaila gertatzen da terrenoak identifikatzea. Beraz, lan honen helburua da mugarriak aurkitzea eta mugakideekin adostea, informazio hori guztia topografikoki jasotzeko eta katastroko datuak eguneratzeko.

Cartonajes Arregui, S.A.

• Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
• Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Zazpi auzo-bide konponduko ditu Udalak aurtengo kanpainan

Auzo-alkateen foroan adostu eta erabakitakoaren arabera, landa auzoetako zazpi bidetan egingo dira konponketa eta hobekuntza lanak aurtengo kanpainak. Hala, Koixkar, Torretxebarri-Lizargarate, Etxatxo-Santue, Askontegi, Gesaltza eta Arantzazurako igoeran asfaltatze lanak egingo dira gune ezberdinetan. Bestalde, Araozko bide nagusitik Maña auzora dagoen sarbideko bihurgunea hobetzeko lanak ere egingo dira, kurba zabalduz eta honi eusten dion horma luzatuz. Injelan enpresak idatzitako proiektuaren arabera, lanek 251.723 euroko aurrekontua dute.

Larreratze kanpaina abiatu du Udalak

2025eko udaberrian egingo den larreratze kanpaina antolatzeari ekin dio Udalak, eta, hala, gutun bana bidali die herriko ganaduzaleei, mendira igoko dituzten animalien identifikazio, osasun neurri eta tasak zehaztuz. Datorren urtean Aloña, Araotz eta Artiako herri onurako mendietara ganadua ateratzeko asmoa duten ganaduzaleek abenduaren 20a baino lehen aurkeztu behar dute eskaera.

Next Generation funtseko 3 milioi jasoko ditu Foru Aldundiak Oñatiko Unibertsitatea zaharberritzeko

Udalak esku artean dituen egitasmo batzuk egikaritzeko ere baliatuko da, hala nola: **Turismo Bulegoa** unibertsitatera lekualdatzea, eta **ikasketa gelak** egokitzea herritarren erabilerarako

Azahara Dominguez, Turismo diputatua, eta Izaro Elorza, Oñatiko alkatea

Next Generation funtseko ia 3 milioi euroko dirulaguntza jasoko du Gipuzkoako Foru Aldundiak Sancti Spiritus unibertsitateko fatxada zaharberritu eta, aldi berean, Oñatiko Udalak eraikin historikoarekin lotuta dituen proiektu ezberdinak egikaritzeko, hala nola, turismo bulegoa bertara lekualdatzea, eta ikasketa-gelak egokitzea, unibertsitatea herriratzeko edo herritarren erabilera areagotzeko xedez.

Udalak 2020an ekin zion Unibertsitatearekin loturiko zenbait egitasmoren lanketari, eta horretan ziharduela, Europako *Next Generatxion* Funtsaren baitan 'Erabilera Turistikoko Ondare Historikoen Errekuperaziorako Laguntza' deialdia argitaratu zen. Gogoratu, bestalde, 2022an Sancti Spiritus eraikineko fatxadako harrizko hainbat elementu erori zirela.

Hori guztiori ikusita, deialdira aurkeztea erabaki zuten Aldundiak eta Udalak. Diputazioaren izenean egin zen eskaera, harena baita Oñatiko Unibertsitatea kontserbatzearen ardura, eta berriki jakin da Next Funtsetik 2.996.285 euroko laguntza jasoko dutela, eraikin historikoaren zaharberritze lanak eta turismo bulegoaren lekualdatzea gauzatu ahal izateko.

Izaro Elorza alkatea pozik azaldu da dirulaguntza hauen ebazpenarekin. "Albiste pozgarria da. Horri esker, hasiera eman ahal izango zaie Oñatiko Unibertsitatea zaharberritzeko eta turismo bulegoa lekualdatzeko lanei. Horrek aukera eskaintzen digu eraikina herriratzeko landuak ditugun beste zenbait proiektu abiarazteko, hala nola, ikasketa gelena. Finean, garrantzitsua da halako espazioak, balio historiko handikoak direnak, turismoari begirako ekintzetara ez ezik, herritarren erabilerara bideratzea. Hori izan da hasieratik bilatu duguna, eta, esan daiteke, uste baino motelago badoa ere, bide onean doala 2020an hasi genuen bidea".

» Eraikina herriratzeko landuak ditugun beste zenbait proeiktu abiarazteko aukera ere emango digu, hala nola, ikasketa gelena

Izaro Elorza
Oñatiko alkatea

» Dirulaguntza honek Oñatiko Unibertsitateko fatxadaren zaharberritze lanak bizkortzeko aukera emango digu.

Azahara Dominguez
Turismo diputatua

2027RAKO AMAITUTA

Gipuzkoako Foru Aldundiak ere bere poza agertu du ebazpen honen aurrean. "Euskadiko Errenazimentuko bitxi arkitektonikoetako bat da Oñatiko Unibertsitatea, eta kezkatuta geunden fatxadak izan duen narriadura progresiboarekin, harrizko hainbat elementu apaingarri erortzeraino", adierazi du Turismo diputatu Azahara Dominguezek.

"Arriskuak gutxitzeko fatxada sareekin ziurtatu ondoren, narriadura horren arrazoien azterketa zehatza enkargatu genuen, eta diagnostikoa egin ostean, badakigu tratamendu edo esku-hartzeak 3 milioi inguruko kostua izango duela, eta Next funtsetik jasoko dugun dirulaguntza honek lanak bizkortzeko aukera emango digu", gaineratu du. Laster aterako dute lizitaziora proiektuaren idazketa, eta, dena ondo bidean, 2027ko udaberrirako lanak amaituta egon daitezkeela uste du Aldundiko arduradunak.

354. zkia
2024ko abendua

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA abian da

Epaimahaiaren hiru sari nagusiez gain, **Herritarren** eta **Haurren** sariak emango dira aurten ere

Udaleko Sozioekonomia sailak antolatuta, Oñatiko XVII. Erakusleiho lehiaketa egingo da aurten, abenduaren 9tik 31ra bitartean. Herriko denda eta zerbitzu guztiei luzatu zaie lehiaketan parte hartzeko gonbita. Azaroaren 29ra arteko epea zuten izena emateko eta, beraz, ez dakigu zenbatek parte hartuko duten, baina udalaren webgunean (www.oñati.eus) atal bat prestatuko da bozka eman ahal izateko eta bertan egongo dira ikusgai lehiaketan parte hartzen duten saltoki guztien erakusleihoak.

BOST SARI

Iaz bezala, aurten ere bost sari emango ditu Udalak. Alde batetik epaimahaiak erabakitako hiru sari nagusiak, 500€, 300€ eta 200€-koak. Balorazioak egiterakoan **konposizioa**, **argiztapena**, **koloreak** eta **originaltasuna** dira kontuan hartuko diren irizpideak. Erakusleihoan denda-zerbitzuaren ohiko produktuak jarri beharko dira.

Hiru sari horiez gain, **Herritarren** saria (500€) eta **Haurren** saria (300€) ere emango dira. Herritarrena aukeratzeko bozketa Internet bidez egingo da, udalaren webgunean (www.oñati.eus) propio egokituko den leihoan. Orrialde honetan ipin dugun QRak eramango zaitu bertara. Lehiaketan parte hartzen duten erakusleihoetan ere jarriko dira bozka eman ahal izateko QRak. Herritar bakoitzeko bozka bakarra onartuko da. Abenduaren 18a (14:00) da bozka emateko azken eguna. Bozka ematen duten herritarren artean 100€-ko erosketa bonua zozkatuko da, herriko saltokietan gastatzeko.

Haurren saria 5eta 12 urte arteko gaztetxoen botoz erabakiko da. Horretarako, ondoko orrialdean ikus daitezkeen bozka-txartelak bete eta Txaloka ludotekan edo Gaztelekuko Sotoan eta Kuboan egongo diren hautestontzietara eraman behar dira, abenduaren 18a (14:00) baino lehen. Bozka ematen dutenen artean 100€-ko erosketa bonua zozkatuko da.

Lehiaketan parte hartzen duten erakusleihoek abenduaren 9rako prest egon beharko dute. Udalak 50€-ko laguntza emango dio parte hartzaile bakoitzari, materiala eta argiztapena ordaintzen laguntzeko.

> IAZKO SARITUAK

Andrea Azkoagak (1), **Barue**k (2) eta **Oreka**k (3) jaso zituzten epaimahaiaren hiru sariak.

Kimu-Urtxin eta **Trikitx**-entzat izan ziren Herritarren eta Haurren sariak, hurrenez hurren.

100€-ko bi sari

100€-ko erosketa bonu bana zozkatuko da **Herritarren** eta **Haurren** sarien bozketan parte hartzen duten herritarren artean

HERRITARREN saria

Internet bidez bakarrik bozkatu ahal izango da, udalaren webgunean. Beheko QRak eramango zaitu bertara. Azken eguna abenduak 18 (14:00etan).

HAURREN saria

5-12 urteko haurrek parte har dezakete. Ondoko orrialdean bozka orriak bete eta Txaloka ludotekara edo Gaztelekura eraman behar dituzte abenduaren 18a (14:00) baino lehen.

OÑATIKO XVI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Haurren saria hautatzeko orria

5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrei zuzendua

Nire botoa erakusleiho honi ematen diot:



SALTOKIAREN IZENA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

SARIA

Botoa eman duten haurren artean 100 euroko erosketa-bonua zozkatuko da

DATUEN TRATAMENDUA

☐ ONARTZEN DUT. Jakinarazten dizugu isilpean mantenduko ditugula ematen dizkiguzun datu pertsonalak, eta datu horiek Oñatiko Udalaren titulartasuneko eta ardurapeko fitxategi batean sartuko ditugula, OÑATIKO XVI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAko Haurren sariaren hautaketan eta zozketan erabiltzeko. Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez, Datuak Babesteko Oinarrizko Legeak espresuki aitortzen duen ikusteko, zuzentzeko, kentzeko eta errefusatzeko eskubidea izango duzu, horretarako Oñatiko Udaleko Sozioekonomia sailarekin harremanetan jarrita: Oñatiko Udala. Foruen Enparantza 1, Oñati.

OÑATIKO XVI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Haurren saria hautatzeko orria

5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrei zuzendua

Nire botoa erakusleiho honi ematen diot:



SALTOKIAREN IZENA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

SARIA

Botoa eman duten haurren artean 100 euroko erosketa-bonua zozkatuko da

DATUEN TRATAMENDUA

☐ ONARTZEN DUT. Jakinarazten dizugu isilpean mantenduko ditugula ematen dizkiguzun datu pertsonalak, eta datu horiek Oñatiko Udalaren titulartasuneko eta ardurapeko fitxategi batean sartuko ditugula, OÑATIKO XVI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAko Haurren sariaren hautaketan eta zozketan erabiltzeko. Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez, Datuak Babesteko Oinarrizko Legeak espresuki aitortzen duen ikusteko, zuzentzeko, kentzeko eta errefusatzeko eskubidea izango duzu, horretarako Oñatiko Udaleko Sozioekonomia sailarekin harremanetan jarrita: Oñatiko Udala. Foruen Enparantza 1, Oñati.

OÑATIKO XVI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Haurren saria hautatzeko orria

5 eta 12 urte bitarteko Oñatiko haurrei zuzendua

Nire botoa erakusleiho honi ematen diot:



SALTOKIAREN IZENA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

SARIA

Botoa eman duten haurren artean 100 euroko erosketa-bonua zozkatuko da

DATUEN TRATAMENDUA

☐ ONARTZEN DUT. Jakinarazten dizugu isilpean mantenduko ditugula ematen dizkiguzun datu pertsonalak, eta datu horiek Oñatiko Udalaren titulartasuneko eta ardurapeko fitxategi batean sartuko ditugula, OÑATIKO XVI. ERAKUSLEIHO LEHIAKETAko Haurren sariaren hautaketan eta zozketan erabiltzeko. Datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia betez, Datuak Babesteko Oinarrizko Legeak espresuki aitortzen duen ikusteko, zuzentzeko, kentzeko eta errefusatzeko eskubidea izango duzu, horretarako Oñatiko Udaleko Sozioekonomia sailarekin harremanetan jarrita: Oñatiko Udala. Foruen Enparantza 1, Oñati.

354. zkia
2024ko abendua

63 urteko ibilbidean ULMA Taldeak izandituen lehendakariak (Luis Mari Madina, Jose Antonio Ugarte —Lurdes Anduaga alargunak jaso zuen oroigarria—, Fran Etxaniz, Jose Luis Madinagoitia, Xabier Mugarza, Irene Alberdi, Raul Garcia, Lander Diaz de Gereñu eta Ibon Calvo) omenalditxoa jaso zuten, kooperatiba ezberdinetan jardun duten milaka gizon-emakumeen izenean.

'ONDAREA'

Iragana eredu, geroa landuz

ULMAren historia jasotzen duen dokumentala eta 6 liburuki aurkeztu ditu kooperatiba taldeak. "Belaunaldi berrientzako ondare historikoa da, nondik gatozen eta honaino nola iritsi garen jakin dezaten, etorkizuna eraikitzen jarraitu ahal izateko".

Fisikoki eskura daitezke liburukiak edo ULMAk sortu duen web tematikoan (QR) ere ikusgai dago material guztia

'Ondarea' proiektua aurkeztu du ULMAk, Kooperatiba Taldearen 63 urte pasako historia jasotzen duen lan bikaina. Sei liburukik —hamarkada bakoitzeko bat— eta beste hainbeste kapituluz osatutako ikus-entzunezkoak osatzen dute 'Ondarea', eta 1961etik gaur egun arteko ibilbidea islatzen da bertan, Oñatiko sei gaztek martxan jarri zuten tailer txiki hartatik gaur egun Euskal Herriko industria talde sendoenetako bat —5.600 inguru langile ditu— bilakatzerainoko bidean bizi izandako mugarriak, gorabeherak eta bizi esperientziak jasotzen dira bertan.

'Belaunaldi berrientzako ondare historikoa da", adierazi zuen ULMA Taldeko egungo lehendakari Ibon Calvok. "Bi urteko lanaren emaitza da 'Ondarea'. Etorkizuna helburu izanik, gure aurreko belaunaldiek bizi eta kontatutako historia jaso eta ordenatu nahi izan dugu, hurrengo belaunaldientzat gera dadin, garbi izan dezaten ULMA zer izan den eta nondik gatozen, etorkizuneko erabakiak hartzeko garaian".

Oñati eta Otxandioko alkateek ere oroigarri bana jaso zuten Ibon Calvo egungo ULMA Taldeko presidentearen eskutik.

Halako proiektu baten parte izatearen ohoreaz berba egin zuen Calvok, eta ekitaldian parte hartu zuten gainerako langile ohiek ere, ULMAk hain bereak dituen balioak ere —elkarlana, sakrifizioa, konpromisoa...— azpimarratu zituzten behin eta berriz, hain zuzen ere une zailetan eutsi eta aurrera irteteko giltzarri izan diren balioak, hain justu.

ULMA Taldearen historiako parte izan diren mailaka gizon-emakumeak izan zituzten gogoan, eta guztien izenean aitortza egin zieten ULMAk bere historian izan dituen 9 presidenteei.

ULMAk bere inguruneare-rekin beti izan duen lotura eta konpromisoa ere gogora ekarri zuten eta, ildo horretan, oroigarri bana eman zieten Oñati eta Otxandioko alkateei. Izaro Elorzak eskerrak eman zizkion ULMAri Oñatin errotuta jarraitzeko egindako ahaleginagatik eta herriari modu askotan egiten dion ekarpen handiagatik

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalera joateko autobusa Oñatitik

Txinparta bertso eskolak abenduaren 14an Donostian jokatuko den Gipuzkoako Txapelketako finalera joateko autobusa antolatu du. Eguerdiko 14:30etan irtengo da Korreos paretik, eta finala amaitzeaz bat itzuliko da. Txartelak (10€) Txokolateixan eskura daitezke.

IKusHI! laburmetrai lehiaketarako deialdi berria

Gazteen artean euskara eta hitanoa sustatzea helburu duen film laburren lehiaketa antolatu da, DBH 3 eta 4 eta Batxilergo mailako gazteei zuzenduta. Maila bakoitzean 400 eta 200 euroko bi sari emango dira. Gainera, abenduaren 15ean tailer praktiko bat egongo da, film labur bat nola egin ikasteko. Abenduaren 5a da izena emateko azken eguna, Gaztelekuan.

Elkartasun ekimena, Aloña Mendiren 75. urteurrena borobiltzeko

(Argk.: Imanol Soriano / Goiena)

Azaroaren 30ean egindako material bilketa izan zen Aloña Mendi kirol elkartearen 75. urteurrena ospatzeko antolatutako azken ekintza. Batutako materiala errefuxiatuak jasotzen dituen Larraña Harrera-Etxera bideratu zen. Bestalde, 75. urteurrenaren harira ateratako merchandising produktuen salmentatik ateratako etekina (1.650 €) Hotz-Oñati taldeari eman dio Aloña Mendik, elkartasun proiektuetara bideratzeko.

500 euroak aise gastatu zituzten goiz batean TXANDAko sarituek

Arantxa Etxeberria, Miren Palacios, Tere Peralta eta Carmelina Gómez izan dira TXANDA dendarien elkartearen azken promozio kanpainan sarituak. Azaroaren 2tik 20ra elkarteko dendetan erosi zuten bezeroen artean zozketatuko 500 euroko sari bana egokitu zitzaien, eta goiz batean gastatu behar zuten, gutxienez lau denda ezberdinetan. Potxek eta Izaskunek pittin bat nahastu bazituzten ere, aise gastatu zituzten 500 euroak.

Hartzidura eta dastaketa tailerra

Eltzian egoitza duen 'Artez Hezten / Creciendo con Arte' taldeak antolatuta, 'Hartzidura eta dastaketa tailerra' egingo da abenduaren 15ean, igandea (10:30-13:30) Eltzian, Rubén Romero biologo eta hartzitzaile adituak gidatua.

"Esperientzia goxo eta osasungarria izango da", antolatzaileen esanetan. "Elikagaiak hartzitzen ikasteko aukera izango duzu, eta, bide batez, hartzigarriek zure ongizatea nola eralda dezaketen deskubrituko duzu".

Zer ikasiko duzu?

-Hartzidura praktikoa: Ikasi prestatzen zure ***Kombucha***, ***Chucrut-a*** eta ***Kimchi***-a..

-Dastaketa esklusiboa: Dastatu etxean egindako (janari/elikagai) hartzituak, dedikazio eta jakintza tradizionalarekin prestatuak..

-Errezeta-liburu pertsonalizatuak: Eskuratu etxean esperimentatzen jarraitzeko errezeta zehatzak biltzen dituen dossier osoa.

Lekua hartzeko: 628212839

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA
Etxe eta lokalen gestio orokorrak
• Administrazioa • Haziendarekin
• Informazioa • Trafikorekin
• Salmenta • Herentziak, eta abar
Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK
• Era guztietako garbiketak
• Jabegoen eta elkarteen administrazioa
• Konponketa orokorrak
GAKO
Garbitasunaren usaina
653 70 45 47
Oñati

Ekiten. Enpresa ekimenak

IZPI ongizatea eta edertasuna

Ekintzailea: Leire Igartua
Helbidea: Maiatzaren 1a plaza, 2-behea
Telefonoa: 633 114 613
E-maila: leeire08@gmail.com
@izpi.ongizatea
Izpi Ongizatea eta Edertasuna

Maiatzaren plaza 1eko 2 zenbakian dago IZPI

Tarteka, Udaleko Enplegu zerbitzuaren laguntzarekin sortutako enpresa ekimenen berri ematen dugu orriotan. Oraingoan, Leire Igartuak zabaldu duen IZPI estetika zentroa aurkezten dizuegu. Aurpegi nahiz gorputzeko tratamenduak, masajeak, manikura, pedikura, betileetako *lifting*-a, makillajeak eta depilazioak ere egiten ditu, besteak beste.

Ongizate eta edertasun zentroa zabaltzera animatu zara. Nolatan?
Arte Ederretako ikasketak amaitu ostean Estetikako goi mailako ziklo bat egitea erabaki nuen. Dor estetika zentroan egin nituen praktikak, eta gero bertan jarraitu nuen lanean, hiru urte eta erdi guztira. Baina beti izan dut buruan neure zentroa irekitzea, eta buruari hainbat buelta eman ostean, urratsa eman eta apirilean zabaldu nuen IZPI ongizate eta edertasun zentroa.

IZPI izena?
Bai, gustatzen zait izena; samurra eta positiboa iruditzen zait, estetika zentro baten jardunerako egokia.

Zein zerbitzu eskaintzen duzu?
Aurpegiko tratamenduak, gorputzekoak, masajeak, manikura, pedikura, betileetako *lifting*-ak, depilazioak, makillajeak (ezkontza eta halako okasioetarako. Beharra baldin badago, emaztegaiaren etxera edo komeni den lekura ere joaten naiz.). Auto-makillaje ikastaroak eskaintzen ere hasi naiz.

Nori zuzenduta?
Bere burua zaindu gura duen edozeini. Gaztetxoak ere etortzen dira, azazkalak margotzera, adibidez, beraien urtebetetzeko kapritxo bezala, edo depilatzen hasten direnak, 14-15 urterekin... Bestalde, 90 urtetik gorako bezeroak ere badauzkat. Beraz, denetik. Egia da, batez ere emakumeak etortzen direla; gizonezkoak gutxiago, baina gonbidatuta daude etortzera.

Laguntzarik jaso al duzu?
Oñatiko udalaren laguntza jaso dut, negozioa abian jartzeagatik (emakumea izateagatik hobari bat dauka), eta lokalaren alokairua ordaintzeko laguntza bat ere bai.

Ganbara Abesbatzak eta Gabara Txikik girotuko dituzte Gabonak EITBn

> **Euskadiko Orkestra**rekin eta hainbat pertsona **famatu**rekin batera grabatu duten saioa **abenduaren 21ean** emango dute Euskal telebistan

AURPEGI EZAGUNAK Ilaski Serrano, Antton Telleria, Dani Alvarez, Eider Hurtado, Olaia Intziarte eta Nerea Elizaldek kolaboratu dute grabazioetan

Oñatiko Garbara eta Ganbara Txiki abesbatzak protagonista izango ditugu aurtengo Gabonetan Euskal Telebistan, abenduaren 21ean ikusi ahal izango dugun Gabon Kanten saio baterako hainbat abesti grabatu baitituzte Euskadiko Orkestrarekin, Fernando Velazquezen zuzendaritzapean. Zehazki, lau kantatan parte hartu zuten oñatiarrek: *Olentzero*, *Trakatan trakatan*, *Kanta Aleluia* eta *Txamarra txartxo* bat. Gainera, Ganbarakoekin batera hainbat aurpegi ezagun ikusiko ditugu emanaldi berezi honetan, hala nola: Ilaski Serrano, Antton Telleria, Dani Alvarez, Eider Hurtado, Olaia Intziarte eta Nerea Elizalde, Go!azen-eko aktorea. Easo abesbatzako haurrek ere beste lau kanta abestuko dituzte, beste famatu batzuekin. Irailean egin zituzten grabaketak Miramonen eta Elkar-en estudioan, eta oso esperientzia polita izan zen Ganbarakoentzat.

UMAMA eguberri diskoa grabatu dute Ganbarakoek

Durangoko Azokan edo Ganbararen webgunean eskuratu ahal izango da

Juantxo Zeberio musikagilearen UMAMA proiektuko disko berrian parte hartu dute Ganbara eta Ganbara Txiki abesbatzek. Uztaila eta iraila bitartean grabatu zuten lan berria Elkar estudioetan Zeberioren Alos Quartet jazz taldearekin, eta beste kolaboratzaile batzuekin.
Eguberrietako hainbat euskal kanta (Birjina maite, Kanta aleluia, Haur eder baten bila...), baina jazz estiloan, euskal abesti tradizionalei ukitu berezia emanez. Durangoko azokan egongo da salgai diskoa, baina, nahi izanez gero, Ganbara Faktoriararen e-mailera idatzita ere (ganbarafaktoria@gmail.cpm) eskuratzeko aukera egongo da.

ZURICH
Mª del Mar Urrutia Negueruela
Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER
ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...
DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA
SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO
OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA
695 78 91 04 - 943 04 47 77

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraen izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.:943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus

Oñatiko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:
Oñatiko Udala
Zuzendaria:
Iñigo Arregi
Publizitatea:
Iñigo Arregi
Diseinua eta Maketazioa:
Iñigo Arregi eta Jabier Erostarbe (azala)
Kolaboratzaileak:
Roberto Altuna
Inprimategia:
Gertu
Tirada:
5.500 ale
Lege gordailua:
SS-357/91
Posta-e:
kontzejupetik@onati.eus

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

MEMORIADUN EUSKARA

Iñaki Idigoras Igartua

Autobiografia idaztea omen da garapen pertsonalerako tresnarik eraginkorrena, askatzaileena. Iraganeko kontuei tira egin eta gogora ekartzeak orainaldiko korapiloak askatzen laguntzen omen du. Bai, laguntzen du orainaldia ulertzen eta komeni zaigun etorkizun bat marrazten. Eguneroko jarrerak berrikusita, garen bezala, lotura gutxiagorekin adierazten hasten gara.

Subjektu pertsonalaz esandako horrek berdin-berdin balio du herri batendako ere. Gure herriaren nortasuna loturik, preso daukate iraganeko gertakarietatik. Hain da traumatikoa daukagun iragana! 1200, 1512, 1620, 1789, 1833/72, 1914, 1936. Ez dira zenbaki hutsalak. Ez dira gertakari hutsalen urteak. Garai esanguratsuak dira gure historian. Zenbat hildako, zenbat zauritu, zenbat min! Zenbateko zapalkuntza, egun ere aurrera daramatena!

Irudikatu dezagun euskaldunon kultura baserri bat dela. Orain 1.200 urte, kultura horrek estatu bat eman zion bere buruari, teilatua ipini, arrotzen erasoetatik babesteko: Iruñeko erresuma, gero Nafarroakoa izango zena. Baina lehen aipatu ditugun urteetan, teilatu hori desegin egin digute. Jada ez daukagu babesik. Estatu gabeko nazioa bainoago, estatuaz gabetutako nazioa gara. Zer gertatzen zaio teilaturik gabeko baserriari? Higatu eta erori egiten dela. Ataka horretan gaude euskaldunok.

Zer egin dezakegu? Erresistentzia egitea dagokigu, teilatuz gabetutako baserriari toldoa ipiniz. Toldo honek bi helduleku behar dituelakoan nago; bi zutabe: euskara eta memoria. Hain zuzen ere, gure nortasuna suntsitzeko, etsaiek indarrez jotzen dituzten bi zutabeak.

Inor gutxik ezagutzen du gure herriaren autobiografia. Eta autobiografia hori ezagutzeak izugarri lagunduko liguke oraina ulertzen, eta komeni zaizkigun estrategiak marrazten.

Nola zabaldu gure historia? Euskara eragileen sare bat badaukagu josia, 50-80ko hamarkadetako pizkundearen ondare. Zer iruditzen, hain garrantzitsua den memoriaren gaia ere sare horren bitartez zabaltzea, euskararekin batera?

Belaunaldi berriko euskalgintzaren berrikuntza horixe litzateke, memoria ere bere barne biltzea. Gainera, iragana ezagutzeak euskara ikasi edota erabiltzeko motibazioa ere sustatzen duelakoan nago. Horrela, bi ardatzek elkar elikatuko lukete, eta behar dugun nortasuna indartu.

Independente izen zirelako gara, eta berriro ere izan gogo gara.

Asmatuko ahal dugu!

Gabonetako emanaldi bereziak Oñati Irratian (FM 107.4)

Gabonetako egun seinalatuetan, eta bezperan, Oñati Irratiak emanaldi bereziak eskaintzeko ohitura dauka. Aurten ere, hala egingo du. Urtean zehar herrian izan diren bertso jaialdiak jaso ditu eta **abenduaren 24, 31 eta urtarrilaren 1ean** emango ditu, **10:00etan** hasiko diren saio berezietan.

Baina guztietan bereziena, **abenduaren 25eko** irratsaioa izango da. Eguberri eguneko saioa osatuko du Mikel Aranburuk, azken urteetan egin bezala. Gabonak atzerrian emango dituzten oñatiarrak elkarrizketatuko ditu eta pantaila txikian eta eszenatokietan bere ibilbidea egiten ari den herritar bat gonbidatuko du estudiora. Entzuleentzako sariak ez dira faltako, Odriozola harategiaren, Mauxka jatetxearen eta Txinparta Bertso Eskolaren eskutik. Abenduaren 25eko irratsaioa ere, **10:00etan** hasiko da.

DEIALDIAK

Euskaraldirako dinamizatzailea kontratatu nahi da Oñatin

Oñatin Euskaraldia ekimena dinamizatzeko langilea kontratatu nahi du Euskaltzaleen Topaguneak. Bost hilabeterako (urtarrilaren 7tik ekainaren 6ra) egingo zaio (egunean 4 orduko jardunarekin). Abenduaren 8a da izena emateko azken eguna ***www.lansarea.eus*** atarian edo ***jon@topagunea.eus*** helbidera curriculuma bidalita.

'Izan artzain egun batez Gomiztegin'

Arantzazuko Parketxeak eta Gomiztegiko artzain eskolak antolatuta. Abenduaren 6an (10:30). Dohainik.Aurrez izena eman behar da: 943796463 / ***infoturismo@debagoiena.eus***

LUPE AZPIAZU GOGOAN

Jose Antonio Azpiazu eta Xabier Zelaia (ARTIXA kultur elkartea)

Azaroaren 5ean jaso genuen berri mingarria: Lupe Azpiazu, gitarrista oñatiarra zendu zela Gironan, 80 urte zituela. Herritar askok ez zuten ezagutuko, gazteek batez ere, bizitza gehiena Genevan, Suitzan, eman zuelako.

José de Azpiazuren —guretzat Joxe— alaba zen Lupe. Joxe 1912an jaio zen Oñatin eta 1986ko abenduaren 27an zendu Suitzan. Gitarrista bikaina eta famatua izateaz gain, ospe handikoa zen gitarraren alorrean. Ikerketa sakonen ondoren, tablatura motako antzinako partiturak idazkera modernora egokitu zituen, gitarraz jo ahal izateko. Mundu guztian ezagutzen zuten lan horregatik. Oñatik ere aitortu dio nolabait bere esker ona, eta Musika Eskolak bere izena darama.

Kontzertu asko eman zituen Joxek hainbat tokitan. Oso ezaguna zen gitarrista onenen artean, eta Andrés Segoviaren mailako musikariek gitarrarako moldatutako pieza berriak eskatzen zizkioten. Instrumentu honetarako piezak urriak izateaz gain, gutxi agertzen ziren merkatuan. Oñatiko artistak fruitu oparoak eman zituen gitarrara moldatutako musikaren alor horretan.

Aitaren itzalean, haren arrastoa jarraitu zuen Lupek, gitarraren munduan erabat sartuta, eta bikote musikal bikaina eratu zuten biek. Bakarrik ere hainbat kontzertu eman zituen. Bestalde, Lupe eta Joxe bat zetozen musika-pedagogiaren alorrean. Biak izan ziren Europako gitarra-maisu ezagunenak. Hainbat ikasle joaten zen Genevara aita-alabaren ikastaroak jarraitzera.

Musika lanetik erretiratu zenean, Lupe Kataluniara mugitu zen, Estartit itsas bazterrera hasieran, eta azken aldian Girona hirira. Oso gustura zegoen bertan, baina gaitzak ez zion barkatu eta utzi egin gaitu.

Neskatila bat zela mugitu zen Suitzara gurasoekin, aita bere musika-ametsak betetzera abiatu zenean, baina maiz etortzen zen Oñatira oporretan, familia multzo ederra zuelako bertan. Oñatin ere eskaini zituen kontzertuak. Adibidez, hainbeste irrikatzen eta faltan botatzen dugun Xabier Ugarte gitarra-kide zuela.

Joxek eta Lupek Suitzan kontzerturen bat eskaintzen zutenean, ongietorria egiten zien bertako prentsak, eurekin batera haize berriak ekartzen zituztelako musika-kulturaren esparrura. Azpiazutarren presentzia erabat zabaldu zen bertako egunkari eta aldizkarietan 1965. urtetik aurrera. Oso estimatuak izan ziren. Halere, Joxek eta Lupek euskaldun sena ondo gorde zuten, eta alabak luze mantendu zuen presentzia hori, osasunak lagundu zion bitartean.

Gazteak kanpora joan, eta han ikasitakoa hona ekartzea da euskaldunon ametsa, gaur egun. Azpiazu bikotearena alderantzizkoa izan zen: berezko talentuaren bidez modu autodidaktan hemen lortutakoa zabaldu zuten Europan zehar, musikaren bidez euskal giroa eta izena ezagutaraziz atzerrian. Orain utzi gaituen Lupek hari horri jarraitu dio, aitak jorratutakoa munduan zehar zabaltzen lagunduz.

Xabier Ugarte, Amaia Azpiazu eta Lupe, Joxe Azpiazuren omenez Bidaurretan emandako kontzertuan

Azpiazutarrak, harro daude Lupek eta bera aita Joxek euskaldunei, eta batez ere oñatiarrei beren musika-dotearekin eta beren artea mundu zabalean barreiatzeagatik eskaini dietenaz.

Atseden hartu, Lupe, eta Egun Haundira arte.

oñabike
oñabike.com
Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65
BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

>> JOLASAREN GARRANTZIAREN INGURUAN <<

Haur guztiak, berezko jarrera batekin jaiotzen dira, jolasteko gogo geldiezinarekin.

Gaur egun, zientziak sostengatzen dituen probekin dakigu jolasa dela ikasteko dagoen biderik onena. Beraz, haur bat jolasean ari denean, egin dezakeen jarduerarik garrantzitsuena, eraikitzaileena eta erabilgarriena egiten ari da.

Guraso edo hezitzaile garen aldetik, ezinbestekoa da haurrak askatasunez eta independentziaz jolas egin ahal izateko jolasguneak eta tarteak zaintzea. Eten gabe, oztopatu gabe, errespetuz.

Gizaki oro, beren benetako esentziarekin oso lotuta iristen dira mundura, baina helduok gara, gure muga eta eskakizunetatik, gure inposizio eta begirada faltatik, pixkanaka deskonektatzen eta anestesiatzen ditugunak. Nahikoa da hezkuntza-sistema nagusia aztertzea, jolasa eta ikaskuntza nola bereizi ditugun egiaztatzeko.

> JOLASA DA HAURREK BEREN BARNEAREKIN KONEKTATZEKO DUTEN BIDEA ETA EZIN DUGU HONEN GARRANTZIA ONARTU GABE JARRAITU

Gure haurren denbora librea ekintzez josten dugu, denbora librea denbora galtze bat izango balitz bezala: Astelehetan inglesera, asteartetan dantza, asteazkenetan pilota edota judo, ostegunetan partikularrak eta ostiraletan berriz ere ingelesa. Non dago haurren denbora librea? Non jolaserako tartea?

Oso garrantzitsua da haurra eta haren jolasa aintzat hartzeko gure moduaz jabetzea eta gogoeta egitea. Jolas libreak norberarekiko lotura argi eta garbi babesten eta errazten duelako. Finean, jolasa da haurrek beren barnearekin konektatzeko duten bidea eta ezin dugu honen garrantzia onartu gabe jarraitu.

Ikuspegi hau indartzen eta herrian hedatzen dihardu **Txaloka ludotekak**, hemen jolasa balioan jartzen dugu, hemen zure haurrak haur izateko tartea izango du, **zatoz gu ezagutzer**a. Ez ditzagun haurrak jolasa den eskubidetik aldendu.

>> GAZTELEKUKO XXX. XAKE TXAPELKETA <<

Hogei ta hamargarren aldiz jokatu zen azaroaren 24an Gaztelekuko Xake txapelketa. Berriro ere Gaztelekua xake zaleekin beteta ikusteko aukera izan genuen, aurten ere ez zuten huts egin Oñatitik kanpo etorritako xakelariek baina ezta ere Oñatikoek, aspaldiko urtetan baino dezente gehiago izan ziren eta. Adin guztietakoak gainera, gazteenak 8 urte baitzituen, nagusienak berriz 58.

Txapelketa **Oier Sarasketa** gazteak irabazi zuen, Oñatiko lehena berriz **Jon Arregi** izan zen. Udaleko Gazteria batzordeko buru Ekhiñe Mendi Altuberen eskutik jaso zituzten sariak.

AGENDA:

- **Azaroak 30,** Akrosport Topaketa. KUBOAN
- **Abenduak 22,** Olentzero eta Mari Domingiren bila. KUBOAN
- **Abenduak 29** GOAZEN! 11.0 (17:00 eta 19:00). Sarrerak: ***www.oñati.eus***
- **Abenduak 26, 28 eta urtarrilak 2** Gabonetako irteerak. TOPALEKUAN
- **Abenduak 27 eta urtarrilak 3** Gabonetako irteerak. KUBOAN

7:37:54

Ironman batean Espainiako inoizko bigarren markarik onena ezarri du Mikel Ugartek

Calellako nazioarteko proban lortu du balentria, 4. sailkatuta

48:33 igeriketan (3,8 km), **04:05:01** bizikletan (180 km) eta **02:40:39** (maratoian) izan ziren Ugarteren partzialak

Gezalaga Margoak
Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Zur eta lur utzi gaitu berriz ere Mikel Ugarte Ramos triatleta oñatiarrak, Ironman proba batean Espainiako historiako bigarren markarik onena ezarri baitu. Calella-Bartzelonako nazioarte mailako lehiaketan lortu zuen balentria, 4. postuan helmugaratuta eta erlojua 7:37:55ean geratuta. Marka onena (7:36) Antonio Benitok egin du aurten Gasteizen.

Atzetik aurrerako lasterketa egin zuen oñatiarrak. Bigarren taldetxo batean, 13. tokian atera zen uretatik, proba irabazi zuen Jan Stratmann alemaniarra (7:28:25) eta beste laukote batengandik ia 3 minutura. Bizikletako lanak ere 16 laguneko bigarren taldetxo batean burutu zituen Ugartek, eta korrikako saioan (maratoia) egin zuen aurrera oñatiarrak, Dylan Magnien (7:32:40) gerora 3. sailkatu zen frantziarrarekin batera, aipatutako Stratmann eta Wilhelm Hirsch (7:30:16) alemaniarren atzetik. Ugartek laugarren postuarekin konformatu behar izan zuen, baina pozik zegoen, batez ere lortutako markarekin, eta emandako errendimenduarekin. Orain arteko bere Ironman onena izan zela aitortu digu. "Lanzaroteko Ironmanean, maiatzean, podiumera igo nintzen, 3. postuan, eta Calellan 4. sailkatu nintzen, baina marka oso ona da. Halako nazioarte mailako probetan aurrean ibiltzea oso zaila da, eta oso-oso pozik nago, Ironman baten orain arte eman dudan errendimendu onena izan baita".

MUNDUKO TXAPELKETAREN ATARIAN

Tamalez, Kona-n (Hawai) jokatzen den munduko Ironman txapelketaren ate-atean geratu da Ugarte, Calellako proban 3 *slot* edo txartel banatzen zirelako. Gauza bera gerta zitzaion Lanzaroten; han bi *slot* banatzen ziren, eta Mikel 3. sailkatu zen. "Penatxoa, bai, baina hala ere oso-oso pozik nago denboraldiarekin. Abuztuan Frankfurten jokatuko zen Europako Ironman txapelketan ere 8 ordutik jaistea lortu nuen, eta urte hasieran esan nuen balidate denbora hauetan ibiliko nintzela, ez dakit sinetsiko ote nuen. Oso gustura eman dudan errendimenduarekin, eta bide horretan jarraitu nahi nuke hurrengo urtean".-

354. zkia
2024ko abendua

Kirol talde bat baino gehiago

'**Bizi Hadi**' talde inklusiboa eratu dute, kirolaren bidez **osasunean** eta **integrazioan** eragiteko asmoz

'BIZI HADI' Kirol Talde Inklusiboa aurkeztu zuten Oñatin azaroaren 16an. Proiektua ez da berria; bost urteko ibilbidea badu, dagoeneko, baina orain arte Atxintxika Triatloi Taldearen barruan egon dira, triatloi egokituko sail gisa, eta aurrerantzean talde autonomo gisa jardungo dute, urte hauetan lortutakoa sendotu eta bide berriak jorratzeko asmoz.

Helburuak, hasierako berberak izaten jarraitzen dute, alegia: desgaitasunen bat duten pertsonei kirola egiteko aukera ematea, kirolaren bidez pertsona horien osasuna eta bizitzeko autonomia hobetzea, kirol egokituari ikusgarritasuna eta bere tokia ematea gizartean, eta, azken batean, integrazioa sustatzea.

LORPENAK

Orain arteko bost urteko ibilbidean lan handia egin du Aitor Rementeria buru duen taldeak. Osasunari dagokionez, bizkarrezurreko lesioak edota garun paralisia duten pertsonekin lan egin dute, igeriketa eta txirrindularitza eta atletismoa bezalako kirolak praktikatuz, egokitutako aulkiekin. Eta kirol emaitzak ere ikusgarriak izan dira; hala, Gipuzkoa eta Euskal Herriko txapelketa guztiak irabazi dituzte, eta taldeko kide bat 6. sailkatu da Behobia-Donostiako *handbike* modalitatean.

Berriro diogu, kirol emaitzak ez direla garrantzitsuenak proiektu honetan, baina ukaezina da, bestalde, kirolari hauek egiten duten lan izugarriak bere emaitzak ematen dituela ikusteak ere lagundu egiten duela, ez soilik fisikoki, baita psikologikoki ere.

SENTSIBILIZAZIO LANA

Baina kirol errendimenduaz haratago, sentsibilizazio mailan ere lan bikaina egiten ari dira Bizi Hadi proiektuaren sustatzaileak. Hala, Aita Mennin eta Toledoko ospitalean hitzaldiak eman dituzte, lesio medularrak dituzten pertsonengan kirola egiteak dituen onurak azaltzen, eta Eskola Kirola programaren bidez, gaztetxoei ere azaldu dizkiete kirol egokituaren ezaugarriak.

> *Kirol talde inklusiboa da; hau da, talde bereko kide izango dira desgaitasunen bat dutenak eta ez dutenak, eta batera lan egingo dute, elkarri lagunduz, egunerokoan eta baita kirol probetan ere*

Proba ezberdinen antolakuntza mailan ere lan handia egiten ari dira, duatloi eta triatloi zirkuituko hainbat probatan kirol egokituari lekua eginez eta, hala, ikusgarritasun handiagoa emanez era honetako probei. "Duela bost urte Euskal Herrian ez zegoen triatloi egokiturik, eta gaur egun 8 duatloi eta triatloi ditugu egokituek ere parte hartu ahal izateko, eta Cantabrian ere eredu gaituzte lehiaketa inklusiboak antolatzeko eta parte hartzeko orduan", azaldu dute.

TALDE LANA EZINBESTEKOA

Era honetako proiektu bat aurrera ateratzeko ezinbestekoa da talde lana eta, zorionez, Bizi Hadi taldearen inguruan inplikazio maila handiko jendea batu da, eta kirolarien jarrera ikusirik proiektua sendotzen jarraitzeko erabakia hartu dute. "Bost urteko eboluzioak argi erakutsi digu merezi duela lanean jarraitzea, desgaitasun ezberdinak dituzten pertsonen osasuna hobetzen eta integrazioa lortzen laguntzen

duelako, kirolaren balore positiboak gizartean txertatzen laguntzen duelako eta, batez, ere, pertsonen artean desberdintasunik egiten ez duen proiektu bat delako".

Garbi dago, ere berean, halako proiektu bat aurrera ateratzeko baliabide material, ekonomiko eta pertsonal ugari behar dela, eta, ildo horretan, eskerrak eman nahi dizkiete proiektua babesten duten entitate, enpresa eta pertsona guztiei. Gaur egun 123 bazkide ditu Bizi Hadi taldeak, eta dei egiten diete herritarrei proiektuarekin bat egitera (bizihadi@gmail.com / 688 635 153 - Aitor).

PROIEKTU INKLUSIBOA

'Bizi Hadi' kirol taldea proiektu inklusibo bezala sortu da; hau da, talde bereko kide izango dira desgaitasunen bat duten pertsonak eta ez dutenak, eta batera lana egingo dute, elkarri lagunduz egunerokotasunean eta baita parte hartzen duten kirol probetan ere. Beraz, ongi etorriak dira denak.

Oraingoz, lau sail dituzte —igeriketa, txirrindularitza, atletismoa eta triatloia—, baina etorkizunera begira ez dute baztertzen sail berriak sortzea ere, beharren arabera. "Azken helburua da kirol egokitua kalean dagoela ikusaraztea, osasun hobekuntzan sortzen diren teknikak aplikatzea, berrikuntza teknologikoak baliatzea, eta desgaitasunagatik etxean geratzen diren pertsonei aukera berriak ematen saiatzea, ez dadin inor etxean geratu aukerarik ez daukalako". ▪

MENDI IRTEERA **URBASA** MENDIKATERA

Urbasa-Bargagain (1160)-Santa Marina (1060)-Hiruhaitzeta-Iturmendi

Aloña Mendiko mendi sailak aurtengorako antolatu duen azken irteera Urbasa mendikatera izango da, **abenduaren 15ean**. Urbasako gainetik eta basoetatik ibiliko dira. Bargagain eta Santa Marinako tontorrak eta Hiruhaitzetako zuloak zeharkatu ostean Sakanako Iturmendira jaitsiko dira.
Zailtasunik gabeko ibilbidea da. Bukaeran, urtea borobiltzeko, bazkaria egingo dute Altsasuko Kaixo jatetxean. Irteera, goizeko 7etan, postetxe parean. Izen-ematea, abenduaren 5etik 12ra, ***alonamendi.mendi@gmail.com***, autobusa bete arte (40 leku).

Goian Bargagain gaina. Ezkerrean, Hiruaitzeta begia

Aitor Murguzur irabazle Berrizen eta Lezaman

ZIKLO KROSA Sasoi bete-betean dabil Egaralur-Magdalena Gasolindegia / Aloña Mendiko Aitor Murguzur txirrindularia. Azken asteotan Berriz eta Lezamako ziklo-krosak irabazi ditu kadete mailan. Gainera, 2. izan zen Zornotzan, 3. Ametzagaina-Zuian, eta 7. Karrantzako Espainiako Kopako proban.

Claudia Martin, Gipuzkoako txapelduna

KARATEA Claudia Martin Aloña Mendiko karatekak urrezko domina irabazi du Gipuzkoako *Kumite* txapelketan Junior mailan (-59kg.), eta brontzezkoa Katan. Euskadiko Kumite txapelketan ere 3. sailkatu da. Bestalde, Ixone Aldea bigarren sailkatu da Gipuzkoako Kadete mailako txapelketan (-54kg.), *Kumite* modalitatean.

Presoen aldeko futbito txapelketa

ARETO FUTBOLA 'Euskal preso eta iheslariak etxera!' lelopean jokatuko da txapelketa abenduaren 26 eta 27an, Zubikoa kiroldegian. Hiru txapelketa bereiziko dira: emakumezkoena, gizonezkoena eta mistoa. Azken honetan, atezainaz gain uneoro bina gizonezkok eta emakumezkok jokatu beharko dute. Arrano tabernan eman behar da izena (30€ taldeko) abenduaren 18ra arte. Gutxieneko adina, 15 urte. Pertsona bakoitzak txapelketa bakarrean parte hartu ahal izango du.

FAGOR PROFESSIONAL
ONNERA GROUP

ARRIZABALAGA Aroztegia
Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA Altzariak
Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA EGOTRATURIKO ALTZARIAK

4S Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiastui Kortabarria
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com
www.4sgoiena.com

354. zkia
2024ko abendua

Kantuan, nola bestela, ospatuko du 20. URTEURRENA Ganbara Kantu Eskolak

Gala-kontzertu baten bidez gogoratuko dute 20 urteko ibilbidea, argazki, bideo eta kantu artean. Kide ohiak ere gonbidatu dituzte parte hartzera.

Esteban Urzelai, Oihane Toledo eta Aitor Biain, Ganbara Kantu Eskolaren sustatzaileak, 2004an

Abenduaren 14an izango da gala-kontzertu berezi hau Santa Ana antzokian, 19:00etan

Ibilian ibilian, hogei urte joan dira Ganbara Kantu Eskola sortu zeneti, haurren abesbatza alorrean zegoen zulo edo hutsune handia betetzeko asmoz. Txiki-txikitatik heziketa korala eskaintzea eta, bide batez, umeen artean abesbatzekiko zeuden aurreiritziak (nesken kontuak dira...) gainditu nahi zituzten, kantuarekin disfrutatu eta ondo pasatzeko aukera emanez. Eta, jakina, Ganbararentzat edo herriko beste edozein abesbatzarentzako harrobia prestatzen joateko aukera emango zuen. Eta halaxe izan da hainbat kasutan.

Gero, poliki poliki, adinaren araberako talde eta ekimen ezberdinetan antolatu izan da Kantu Eskola: Tailerrak, Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txiki, Ganbara Gazte... Eta ibilbide oparo eta aberatsa egin dute guztien artean.

Kontzertuak han-hemenka emateaz gain, sari garrantzitsuak ere irabazi dituzte lehiaketa ezberdinetan,eta Euskal Herriko antzoki handietara iritsi diren *Altxorraren Uhartea* (2015), *Argiaren Hotsa* (2016) edota *Pinotxo, hariekin lotu gabe* (2017) bezalako musikal arrakastatsuak ere taularatu dituzte, *Kantua Kalean* eta *Oñati Ezagutuz* ekimenak ahaztu barik, besteak beste. Bi disko ere grabatu dituzte: *Munduari begiratzeko* (2008) eta *Hamar* (2013). Egun, Aitor Biain Bidarte eta Aitor Agiriano Agirreolea dira Kantu Eskolako zuzendariak.

20 URTEKO OSPAKIZUNA

Hogei urteko ibilbide oparo hau gogoratu eta ospatzeko gala-kontzertu berezia egingo dute abenduaren 14an, Santa Ana antzokian, 19:00etan, eta, modu batera edo bestera, Ganbara Kantu Eskolako familia handi honetako kide izan diren guztiak daude gonbidatuta. Kantari ohiak ere gonbidatu dituzte parte hartzera, eta horretarako bi entsaio egingo dituzte abenduaren 4an eta 11n, Errekaldeko entsegu lekuan (19:00-20:15).

Kontzertu berezi honetarako sarrerak (5€) *www.oñati.eus* eta Txokolateixan daude salgai.

Izar eta Lukene, ipuinak eskutan dituztela

Haurrentzako bi ipuin plazaratu dituzte Lukene Igartua eta Izar Mendiola ama-alabek

Txorimaloarena eta ***Haitzeko zuloarena***, horiek dira Lukene Igartuak eta Izar Mendiolak plazaratu dituzten album ilustratuen izenburuak, eta herriko liburu dendetan eskura daitezke 12 eurotan.

Oñatin kokatutako istorioak dira biak ala biak. Lehenengoan Atzeko Kaleko jaietako txorimaloak dira protagonistak. Jaiak hasi dira kaleak kolorez jantziz, baina igandean, ezusteko baten ondorioz, txorimaloak ez dira betikoak izango. Bigarren ipuinean Aitzulo da protagonista, garai batean zulo hark ikara sortzen omen baitzuen oñatiarren artean, ipuinaren arabera. Lukenek sortu eta idatzitako istorioak dira, eta Diseinu gradua ikasten ari den Izar alabarenak ilustrazioak eta maketazioa. Elkarrekin lan egitea oso berezia izan dela aitortu dute, eta harrera ona badute, ez dute baztertzen beraien ahizpa eta izeba zen Mila Igartuaren omenez sortu duten ***Mila*** bilduma ipuin gehiagorekin osatzea.

IPUIN KONTAKETA ETA TAILERRA / Abenduak 12

'ASKATASUN DOINUA'

Palestinak bizi duen egoera haurren ikuspegitik azaltzen duen ipuina aurkeztuko du Mitxel Elortzak

Mitxel Elortza (BERRIA)

Udal liburutegiak haurrei zuzenduta hilero antolatzen duen Ostegun Kontalariak ekimenaren baitan Mitxel Elorzaren bisita jasoko dute abenduaren 12an, haurren liburutegian, 18:00etan.

Irakaslea da Elortza, eta hezkuntza komunitatean iaz abiatu zen 'Gure haurrak ere badira' dinamikan parte hartzen du. Palestinaren aldeko hainbat ekimen burutu dituzte, baina, horiez gain, Palestinak bizi duen egoera haurrei azaltzeko beharra sentitu zuen, eta helburu horrekin idatzi du ***Askatasun Doinua*** (Zorrotz) ipuin ilustratua, Mariñe Jauregiren marrazkiekin.

Palestina izeneko familia bat da ipuineko protagonista. *Gaza* eta *Zisjordania* anai-arrebak pozik bizi dira, askatasunean. Batek *mijwiza* jotzen du, arabiar klarinete bikoitza, eta besteak *ouda*, arabiar lautea. Baina, bat-batean familia banatu egingo dute. Bataren eta bestearen bizipenak eta sufrimendua kontatzen da ipuinean; palestinar herriak bizi duen genozidioa, azken batean, haur ikuspegitik. Ipuineko haur protagonistek musika baliatuko dute ('Askatasun doinua') beraien ezinegona eta sufrimendua adierazi eta 'nahikoa da!' aldarrikatzeko. Enpatia, kulturartekotasuna eta elkartasuna balioan jartzen dira ipuinaren bidez.

Ipuina aurkeztu eta kontatzeaz gain, sortze prozesua eta Elortzak berak pianorako idatzi duen 'Gaza' obra joko du. Eta, gainera, tailer txiki bat ere egingo dute umeekin, beraiek ere etxera eraman dezaten Gaza eta Zisjordaniaren collage-a. Abenduaren 2an irekiko da izen-ematea udal liburutegian.

IRAKURKETA-IDAZKETA TALDEAK

Peru Magdalenak gidatzen duen Haurren Irakurketa Klubak abenduaren 2an izango du hile honetako saioa *Xomorro poemak* (Leire Bilbao) liburuaren inguruan.

Komikia-Tertulixan taldea abenduaren 3an bilduko da *Kobane calling* eta *No sleep till Shengall* liburuak aztertzeko, Igor Leturiak dinamizatuta. Itziar Ugartek gidatzen duen Tertulixan Euskaraz taldeak *Detaile xume bat* (Adania Shibli) eleberria aztertuko du hilaren 10ean. Eta Tertulixan-Gaztelaniaz taldea hilaren 17an elkartuko da *Tengo miedo torero* (Pedro Lemebel) nobela aztertuko du, Mónica Leivak dinamizatuta. Idazketa tailerra 16an izango da Iturraldek gidatuta.

HIKADROMOA
egingo da aurten Durangoko azokan

Iaz Oñatin burutu zen Euskal Herriko I. Hika Topaketaren ondoren sortu zen **ZirHika** taldeak antolatuta, Euskal Herriko I. **Hikadromoa** egingo da Durangoko azokan (abenduaren 7an,Landako ikastetxean, 16:00-17:45). Bagera elkarteak gidatuko du saioa eta bertan elkartzen direnek laukoteka jardungo dute hika, 15 minutuero taldez eta gaiz aldatuz. Izena emateko formularioa prestatu dute (QRa eskaneatuta) edo, bestela, telefonoz ere eman daiteke izena: 943121775 / 652750947. Hika dakitenak eta ikasten ari direnak, guztiak daude gonbidatuta. Euskalkian zein batuan, hika hitz egitea eta ondo pasatzea izango da helburua.

BESTE JARDUERA BATZUK

Abenduaren 6an ***Appa Hi!*** aplikazioaren bertsio berria azalduko dute azokako areto nagusian (19:20). Eta hilaren 7an mahaingurua ('Hik eta biok') egongo da Durangoko museoan (11:30), Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuak antolatuta.

(Argk.: Santi Mendiola)

Mozart-en sinfonia eta Séjourné-ren kontzertua Oñatin, Aequus Ensemble orkestraren eskutik

Abenduaren 15ean goi mailako musika sinfonikoaz gozatzeko aukera izango dugu beste behin Oñatin, Mikel Goiaingeruaren parrokian, 19:00etan

Goi mailako musika sinfonikoaz gozatzeko aukera izango dugu, beste behin, Oñatin, Ganbara Faktoriaren baitan sortutako Aequus Ensemble orkestraren eskutik, Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean. '**Hic eta Nunc**' (Orain eta hemen) du izenburua abenduaren 15ean (Mikel Goiaingeruaren parrokian, 19:00) eskainiko duen kontzertuak, eta bi zati izango ditu. Lehenengoan, Wolfgang Amadeus Mozart (Salzburgo, 1756 - Viena, 1791) musikagile austriarraren 36. Sinfonia, *Linz* izenez ere ezagutzen dena entzuteko aukera izango dugu. Mozarten bigarren sinfonia da, 1783an idatzia, bere emazte Constanze Weber-ekin batera Linz hiriko Johann Joseph Anton kondearen etxean egindako egonaldian sortua, eskertza gisa.

Bigarren zatian, Emmanuel Séjourné (Limoges, Frantzia, 1961) musikagile eta perkusio-jotzaile frantziarrak idatzitako *Concerto for Marimba and strings* bi mugimenduko obra entzungo dugu. Bi zati dituen obra da; lehenengoak hasierako kadentzia polita eta tenpo motelagoa ditu, eta bigarren mugimenduak askoz energia gehiago eta joko distiratsuagoak ditu. Linz hirian estreinatu zuen eta, beraz, Austriako hiri hori dute lotura bi konposizio eder hauek. Bigarren obra honetan Kepa Lopez oñatiar gaztea bakarlari gisa ariko da marimba instrumentuarekin. Sarrerak (8€), Txokolateixan eta *www.oñati.eus.*

Kepa Lopez gaztea bakarlari ariko da

Kepa Lopez oñatiar perkusio-jotzaile gaztea izango da Aequus Ensemble orkestrak abenduaren 15ean eskainiko duen kontzertuko protagonistetako bat, E. Séjourné-ren kontzertuan bakarlari gisa ariko baita marimba instrumentuarekin. Lopez perkusio ikasketak amaitzen ari da Jesus Guridi kontserbatorioan eta, normalean, tinbalak jotzen ditu orkestran.

Mekalki S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak
Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Herriko txoko guztietara iritsi nahi?
Jarri zure iragarkia aldizkarian
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72

'Esku Hutsik' elkartearen alde abestuko du Oñati Abesbatzak

Abenduaren 21ean izango da kontzertua, Agustindarren elizan (20:15)

Oñati Abesbatzak elkartasun ukitua emango dio aurtengo Gabonetako kontzertuari

Urteroko ohiturari eutsiz, Gabon jaien atarian kontzertua emango du Oñati Abesbatzak. Baina aurtengoa berezia izango da, elkartasun ukitua izango baitu abenduaren 21ean Agustindarren elizan emango duten kontzertuak. Emanaldiaren amaieran borondatea eskatuko da, eta batutako dirua ESKU HUTSIK elkartearentzat izango da.

Hainbat gurasok sortutako irabazi asmorik gabeko elkartea da ESKU HUTSIK. Haurdunaldian, erditzean edo jaio berritan umea galdu eta dolua bizi izan duten edo bizitzen ari diren guraso eta senideei laguntza ematea da elkartearen helburua.

Oñati Abesbatzako kideak elkarteko lehendakari Maria Gonzalezekin jarri ziren harremanetan, eta honek pozarren jaso zuen oñatiarren ekimena. Azpimarratu behar da, gainera, Oñatin ere badaudela elkarte honetako kideak diren familiak. Kontzertua dohainik izango da, eta bertaratzen diren entzuleen borondateari esker lortutako dirua bideratuko zaio ESKU HUTSIK elkarteari.

DOHAINIK

Bukaeran borondatea eskatuko da eta batutako dirua 'ESKU HUTSIK' elkarteari bideratuko zaio

Abenduaren 21ean, larunbata, meza ostean (20:15) hasiko da kontzertua, eta kutsu erlijiosoa nahiz profanoa duten kantak abestuko dituzte Mirengu Plazaola zuzendariak azaldu digunez: *Adoramus Te*, *Christe*, *Cantique de Noel*, *Festejo de Navidad*, *Goiko mendian*, *Zum Sanctus*... "Bukaeran *Hator Hator* eta *Gau ixila* abestuko dugu kontzertura bertaratzen diren guztiekin batera. Kontzertu xume baina ederra eta hunkigarria izango da".

ESKU HUTSIK

Euskadiko Haurdunaldi, Erditze eta Jaioberrien Dolu elkartea

Haurdunaldian, erditzean edo jaioberritan haurra galdu duten familiei babesa, informazioa eta baliabideak eskaintzea helburu duen irabazi asmorik gabeko elkartea da ESKU HUTSIK. Antzeko trantzea bizi izan duten guraso eta familiek sortutako elkartea da. Dolu prozesuan familiarentzako lagungarri gerta daitezkeen giza baliabideak eta materialak eskaintzen ditu, bai eta umearen heriotzaren osteko laguntza burokratikoa ere. Sentsibilizazio eta oroimen ekitaldien antolaketan ere laguntzen du, eta doluan dauden familiekin lan egiten duten osasun-langileei formazioa ematen die. ***(https://eskuhutsik.es)***

JUANJE MARGOAK
627 818 247

ARKITEKTURA
Baserriak ✷ Teilatuak ✷ Fatxadak ✷ Igogailuak
Bidebarrieta 13. Oñati ✷ tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com

'Gaixorik nago, eta zer'

Minbiziaren akonpainamendu, formazio eta dibulgazioan ikuspegi feminista batetik lan egiten duen **Izan Inurri** elkartearen aldeko ikuskizuna eskainiko du **Hots Abesbatza**k

ABENDUAREN 22AN IZANGO DA EMANALDIA SANTA ANA ANTZOKIAN, 19:00ETAN

Iazko abenduan Hots Abesbatzak eskainitako 'Sorginak' ikuskizuneko une bat

Faktoria Soziala ekimenaren baitan, ikuskizun berezia eskainiko du Hots Abesbatzak abenduaren 22an, Santa Ana antzokian, arratsaldeko 19:00etan, IZAN INURRI elkartearen aldeko kontzertu solidarioa izango baita. Duela bost urte sortu zen elkarte hau, bularreko minbizia eta bestelako minbizi mota ezberdinak jasan behar izaten dituzten emakumeei laguntzeko asmoz, akonpainamendua eskainiz, inolako epairik gabe, gaitzaren inguruko tabuak desagerrarazteko helburuarekin.

'Gaixorik nago, eta zer?' du izenburua kontzertu-ikuskizunak, eta ondoko egitarauan ikus daitekeen moduan, minbizia diagnostikatzen dioten pertsonak bizi behar izaten dituen egoerak, sentimenduak eta bizipenak islatuko dituzte HOTS taldekoek hamaika abestiren bidez. Gaixotasunari aurre egiteko kemena nondik ateratzen duten eta emozio ezberdinak nola gainditzen dituzten azaltzen saiatuko dira, irudiak, ahotsak eta musika tartekatuz. Zer pentsatua emango duen ikuskizun zirraragarria izango da, Aitor Biain Bidarte zuzendariak azaldu digunez.

IZAN INURRI taldekoekin batera prestatutako emanaldia da, eta sarrerari esker lortzen den diruaren zati bat elkartearentzat izango da. Gainera, IZAN INURRI elkartearen produktuak (zapiak, poltsak, serigrafiak...) erosteko aukera egongo da emanaldian bertan, horixe baita elkarteak formazio eta dibulgazio lana egiteko daukan diru-iturri bakarra.

Sarrerak 10€ balioko du eta Txokolateixan nahiz ***www.oñati.eus*** webgunean egongo dira salgai. Gainera, '0 aulkia'-ren bidez elkartearentzako donazioak edo diru ekarpenak egiteko aukera egongo da, sarrera erosi gabe, ***www.oñati.eus*** webgunearen bidez.

EGITARAUA
'Gaixorik nago, eta zer?

OPORRETATIK BUELTAN: ZORIONTASUNA

1. **Goizian argi hastian** (Konp.: Melody-Ky)

KONTSULTARA NOA: URDURITASUNA

2. **Taupaka** (J. Guerrero)

EMAITZA JASO: NEGAZIOA

3. **Maite nau?** (J. Elberdin)

ETSITUA: IRA (Haserrea)

4. **El grito** (E. Rautavaara)

ETORKIZUN BELTZA: BELDURRA

5. **Munduari begiratzeko modu bat** (Sarasola)

ZULO BELTZA: DEPRESIOA

6. **Zulo beltzetatik** (I. Gonzalez) *

ARGIA BIDEAN: ONARPENA

7. **Itsasoa ari zait** (I. Azurmendi)

LAGUNAK ETA FAMILIA: MAITASUNA

8. **Etxean** (J. Guerrero)

TRATAMENTUA: BORROKA

9. **Borroka** (J. Saez) *

BIDEAN GALTZEN DIRENAK: AUSARTAK

10. **Agur maite** (E. Ugalde)

LEHENENGO BATAILAREN IRABAZLEA: ATSEDENA

11. **Ezeren esperoan** (J. Elberdin) *

(*) Ikuskizun honetarako propio sortutako kantak
- Piano-jolea: Amaia Zipitria
- Zuzendaria: Aitor Biain Bidarte
- Iraupena: 75'

'IZAN INURRI' ELKARTEA

2019an eratu zen IZAN INURRI elkartea, emakume talde bat ohartu zenean ez zegoela minbizia normaltasunez, tabuetatik libre eta zuzenean nahiz zeharka bizi duten pertsonak ahalduntzeko eran lantzeko gunerik.

Taldeko kide baten amak inurriak zeramatzan orkatilan tatuatuta. Minbizi prozesu luze baten ostean hil zen, eta orduan hasi zen alaba *iñurri* bilakatzen. Denborarekin, intsektu txiki eta nekaezin gehiago batu zitzaizkion taldera. Eta gehiago, eta gehiago, eta gehiago. Gaur arte.

IZAN INURRI elkarteko kideek akonpainamendu libre eta aktiboa eskaintzen dute, epairik gabekoa eta ikuspegi transbertsalean oinarrituta.

Formazioa ere eskaintzen dute, gizarte osoarentzat, esperientzian oinarritutako metodologia ardatz. Izan ere, minbizia normalizatzeko eta gaixotasunaren inguruko tabuak eta isiltasunak desagerrarazteko gakoa baita. Bizipen eta testigantza errealetatik abiatuta, minbiziaren inguruko ikuspegi feminista eta eraldatzailea sustatzeko ekitaldiak, produktuak eta kanpainak antolatzen dituzte. Denda solidarioa (***izaninurri.eus***) da beraien diru-iturri nagusia. Komunitate irekia da.

HITZALDIA OÑATIN / abenduak 18

Hots Abesbatzak antolatu duen ikuskizunaren harira, IZAN INURRI taldekoek hitzaldia emango dute Oñatin, **abenduaren 18an** (Santa Ana, 19:00). Bularreko minbiziaz eta taldeak egiten duen lanaz hitz egingo dute.

HATOR, HATOR Gabonetako kontzertua abenduaren 22an

Musika Banda eta **Banda Gaztea**z gain, **Ganbara**, **Hots** eta **Oñati** abesbatzek parte hartuko dute. Zubikoa **pilotalekuan**, 12:30

Iazko 'Hator Hator' kontzertuko irudia. (Joxe Fernandez)

Laster ditugu Gabonak gainean, eta urtero lez, herriko hainbat musika taldek (Musika Banda, Banda Gaztea, Ganbara Abesbatza, Hots Abesbatza eta Oñati Abesbatza) kontzertua eskainiko dute abenduaren 22an, kiroldegiko pilotalekuan, eguerdiko 12:30etan, herria eguberri giroan murgiltzeko.

Talde bakoitzak bina pieza jo edo abestuko ditu eta, emanaldia borobiltzeko, denek batera John Williams-en *Hymn to the fallen* (*Salvar al soldado Ryan* filmekoa) eta *Dry your tears, Africa* (*Amistad* pelikulakoa) abestuko dituzte. Miren Arregik aurkeztuko du emanaldia.

Kontzertua dohainik izango da (aurrez Txokolateixan eskuratu behar dira sarrerak), baina amaieran borondatea eskatuko da eta batutako dirua Misio Taldeari bideratuko zaio Dhagguel-en Emakumeen Eskola eraikitzen jarraitzeko.

KONTZERTU SOLIDARIOA IZANGO DA

Kontzertua dohainik izango da, baina borondatea eskatuko da eta batutako dirua Misio Taldearentzat izango da, Dhagguel-en Emakumeen Eskola eraikitzen jarraitzeko

ETXiAN
Inmobiliaria
Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net

carpintería
GARIBAI
aroztegia
Mota guztietako zurgintza-lanak
Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

'**Silentium**' kontzertu sinfonikoa eskainiko dute **Ganbara Abesbatza**k eta **Aequus Ensemble** orkestrak urtea agurtzeko

Miriam Cepeda organu-joleak eta **Ane Artetxe** harpa-joleak ere parte hartuko dute

Urtea agurtzeko kontzertu sinfonikoa eskainiko digu Ganbara Abesbatzak abenduaren 29an, igandea, Mikel Goiaingeruaren parrokian, 19:00etan.

'***Silentium***' du izenburua emanaldiak, eta izenak berak aditzera ematen duen moduan, ixiltasuna eta erreflexioa edo barne-gogoetarekin lotura dute emanaldian entzungo ditugun obra guztiek. Estilo minimaliasta eta musika garaikidea izango dira protagonista.

Kontzertuak bi zati izango ditu. Lehen zatian Ganbara Abesbatza bakarrik ariko da, eta bigarrenean Aequus Ensamble orkestra sinfonikoaren laguntza izango dute. Gainera, Ana Artetxe harpa-joleak eta Miriam Cepeda organu-joleak ere parte hartuko dute. Artetxe EGO orkestrako harpista titularra izan da eta hainbat talde eta orkestratan parte hartzen du. Cepeda, Bilboko Begoña basilikako organu-jotzailea da eta 'Jesus de Monasterio' kontserbatorioko irakaslea, besteak beste. Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean ariko dira guztiak. Kontzertu erakargarria eta gustura entzutekoa. Hauxe da programa

Ane Artetxe, harpa-jolea, eta Miriam Cepeda organu-jolea

'SILENTIUM' (EGITARAUA)

1. *The fruits of silence* (P. Vasks)
2. *Eye has not seen* (G. Pelëcis)
3. *The Deer's cry* (A. Pärt)
4. *Dun medium silentium* (V. Miskinis)
5. *Pater noster* (P. Vasks)
6. *Requiem for the living* (D. Forrest)

(Sarrera: 8€ / Txokolateixan eta www.oñati.eus)

Itten bat

(*) Itten: arrastua, pistia

>> ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA

Fidelen despedidia

✍ **ROBERTO ALTUNA**

Orainguan, orain dala berrogeita bost urteko fotografixia dakargu; bertan hogei urte inguruko herriko gazte kuadrilla bat ageri xaku, gehixenak Kale Zaharrekuak, San Juan kalekuak, Lizaur kalekuak edota inguruetakuak. Une hartan lagun kuadrillak ez eukaiñ izen jakiñik, baiña handik gutxira beteranuen herriko futbol txapelketia martxan jarri zanian, futbol talde edo ekipo bakoitzari bere izena emun xakon eta hortik gero kuadrilliak futbol taldiaren izena hartzeia. Gure kasuan, futbol taldiari 'lokotxak' jartia pentsau euen, eta hola bixak izen horrekin ezaguketan hasi ziran bai futbol taldia bai kuadrillia. Lokotx,-a berbiak artaburu zurittua edo aletua esan gura dau, gure herrixan 'artákaskara, -ia' izena ezagunagua bada be.

Fotografixia 1979ko garagarrillaren (uztaillaren) 13an etarata dago Kale Barrixa goixenian, Txoriñeko eta Kaioneko kantalak baiño goratxuago, hain justu be. Kuadrillako mutil danak juerga antzian ikusten dittugu, egun hartan Atzeko Kaleko 'Gure Leku' tabernan Fideleri egin xakon afari-despedidia egin aurretik; izan be, urte batzuk lehenago Fidel Oñatira etorri zan Pakistanetik bere herriko beste gizakume-kuadrilla batekin, eta, lokotxatarrekin amistadia egin, eta, azkenian, kuadrillakua egin zan. Hemen urtetxo batzuk obretan lanian pasau ostian, fetxa horreittan bere herrira oian lehenengo aldiz, gehixago bueltauko ete zan ez ekixela. Atzenian, baiña, bueltau egin zan, eta Oñatin bizitten jarraiketan dau gaur egunian be; baiña hori bai, Pakistango Panjab izeneko bere lurraldiarekin dakon loturia iñoiz eten barik.

Lokotxak kuadrillako hainbat lagun Fidelen despedida egunian

Hona hemen fotografixan ageri diranak:
Goiko illaratik hasitta, ezkerretik eskumara: *Imanol Arrazola, Juanje Anduaga, Iñaki Urzelai, Joxemari Zubia, Fidel Chohan bera, danon erdixan, Iñaki Etxeberria, Patxi Ugarte* eta *Juan Gordoa* harutzatxuago, losa gaiñian.
Erdixan, makurtuta: *Juanjo Aiastui, Enrique Guridi* eta *Mikel Ugarte*.
Beherago: *Rafa Aranburu* eta *Joxe Urtaza*.
Eta behian jasarritta: *Aitor Azkune* eta *Jon Azpiazu*.

Gorantziak lokotxatar danoiri, eta urte askuan jarraittu degigula orduko umoriarekin!

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan

AZOKA

ABENDUAK 14 / 10:00-15:00
ELKAR HEZI TAUPADAK
Elkar Hezik antolatutako elkartasun azoka: GKEak, tailerrak... Foruen plazan

ABENDUAK 15 / 10:30-14:15
ARTISAUEN AZOKA
Oñatiko artisauen Gabonetako azoka. Merkatu plazan

BISITA BEREZIAK

ABENDUAK 29 / 12:00
LEHOIAREN ORROA
Bisita gidatua familientzat. Erreserbak: 943 08 20 00. Arrikrutzeko koban

EKITALDI BEREZIAK

ABENDUAK 6 / 17:30-19:30
KANDELEN GAUA
Unibertsitateko klaustroan. Sancti Spiritus unibertsitatean

ABENDUAK 14 / Egun osoan
GAZTETXEAREN 12. URTEURRENA
Goizean ginkana herrian zehar, ondoren bazkaria, gero kantu zaharren karaokea, arratsaldean kale-giroa, eta gauean (22:00) kontzertuak.

ABENDUAK 19 / 17:00
BINGO BEREZIA
Gabonetako bingo berezia. Pake Lekun

ABENDUAK 21 / 12:00
TXISTORRA JANA
Santamaseko txistorra jana. Pake Lekun

ERAKUSKETAK

ABENDUAK 9 - URTARRILAK 5
TXONTXONGILOEN AMETSAK
Corrado Masacci txotxongilo-antzerkigile italiarraren erakusketa. Kultur etxean (egunero, 18:00-20:00).

HITZALDIAK

ABENDUAK 11 / 10:30
'Amiantoa (hiltzaile isila). Arazoa hor dago'
Hizlaria: Jesus Uzkudun. Eltzian

ABENDUAK 11 / 18:30
'Agroekologia eta etxeko ortua'

Gospel doinuak, Nightingale boskotearen eskutik

ABENDUAK 27 / SANTA ANA ANTZOKIAN - 19:00

Urtero lez, Gabonak iristearekin batera gospel musika ederraz gozatzeko aukera izango dugu aurten ere. Lau ahots eder (Margaux Carteret -sopranoa-, Maeva Lerallu -sopranoa-, Sandrine Garcia -mezzo-sopranoa-, Sophie Chamayou -altoa-) eta pianu-jole batek (Tanja Krivokapic) osatutako taldea da Nightingale Gospel Quintet taldea, eta Rosetta Tharpe, Mahalia Jackson eta Ward Singers izar handien doinuez hunikaraziko gaituzte. Sarrerak (10€) www.oñati.eus eta Txokolateixan

Hizlaria: Jakoba Errekondo. Zine aretoan

ABENDUAK 17 / 18:30
'Kapazak al gara garaian garaiko elkagaiekin bizitzeko? Garaian garaikoaren garrantzia eta trantsiziorako alternatibak'
Hizlariak: Andrea Larrea eta Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizionista oñatiarrak. Zine aretoan

ABENDUAK 18/ 18:30
'Tokiko elikadura jasangarria. Gaurko eta etorkizuneko erronkak', mahai-ingurua
Hizlariak: Ainhoa Narbaiza (Ereindajan), Asier Garai (Eskubaratz) eta Agus Otxoa-Aizpurua sukaldaria. Zine aretoan

ABENDUAK 18 / 19:00
'Izan Inurri' elkartearen lana
Bularreko minbizia duten emakumeei laguntzeko elkarteak egiten duen lana azalduko dute. Santa Ana aretoan

JOLAS PARKEAK

URTARRILAK 2 ETA 3
GABONETAKO JOLAS PARKEA
Ohe elastikoa, puzgarriak, tailerrak, trena... Goizez (11:00-14:00) eta arratsaldez (16:30-19:30) Prezioa: 3€ (egun erdia) / 5€ (osoa). Kiroldegian

LITERATURA

ABENDUAK 12 / 18:00
'ASKATASUN DOINUA'
Palestinako egoera haurrei azaltzeko idatzi duen ipuina aurkeztuko du Mitxel Elortza idazleak. Haur liburutegian

MUSIKA

ABENDUAK 14 / 19:00
20 URTE AHOTSEN BIDEAN
Ganbara Kantu Eskolaren kontzertua (5€). Santa Ana aretoan

ABENDUAK 15 / 19:00
HIC ETA NUNC
Aequus Ensemble orkestraren kontzertu sinfonikoa (8€). Parrokian

ABENDUAK 21 / 19:00
HARAT + NIZE
Burrunda Faktoriak antolatutako kontzertua. Antixena gaztetxean

Amorante eta Mahl Kobat

ABENDUAK 22 / ANTIXENA GAZTETXEAN - 19:00

Ibon Urizar (Amorante) elgoibartarra eta Beñat Bidegainen (Mahl Kobat) musika proiektu pertsonalak entzuteko aukera izango dugu Burrunda Faktoriaren eskutik

ABENDUAK 21 / 20:15
OÑATI ABESBATZA
Oñati Abesbatzaren kontzertu solidarioa Esku Hutsik elkartearen alde. Dohainaik (borondatea eskatuko da). Agustinoetan

ABENDUAK 22 / 12:30
HATOR HATOR
Ganbara, Hots eta Oñati abesbatzak, eta Musika Banda eta Banda Gaztearen kontzertua. Dohainik (borondatea eskatuko da Misio Taldearen elkartasun proiekturako). Zubikoa pilotalekuan

ABENDUAK 22 / 19:00
'GAIXORIK NAGO, ETA ZER?'
Hots Abesbatzaren kontzertu solidarioa Izan Inurri elkartearen alde (10€). Santa Ana aretoan

ABENDUAK 29 / 17:00 eta 19:00
GO!AZEN 11.0
Go!azen telesailekoen emanaldi bikoitza 6-18 urte artekoentzat soilik (10€). Santa Ana aretoan

ABENDUAK 29 / 19:00
SILENTIUM
Ganbara Abesbatza eta Aequus orkestraren kontzertua (8€) Parrokian

TAILERRAK

ABENDUAK 15 / 10:30-13:30
HARTZIDURA ETA DASTAKETA TAILERRA
Artez Hezten / Creciendo con Arte taldeak antolatuta, Rubén Romeroren eskutik. Lekua hartzeko deitu: 628212839. Eltzian

ZINEA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 / 22:00) eta Igandea (19:30)
Gaztetxoak: Larunbata eta Igandea (17:00)
Ikuslearen eguna: Astelehena (19:30)

Abenduak 5 - 9

ZINE KLUBA:
HERE, UN HOMBRE BUENO
NAGUSIAK:
LAS CHICAS DE LA ESTACION
GAZTETXOAK:
UNA FAMILIA MONSTRUOSA

Abenduak 12 - 16

ZINE KLUBA:
LOS DESTELLOS
NAGUSIAK:
EMILIA PEREZ
(Cannes-ensaritua eta Donostian izendatua)
GAZTETXOAK:
VAIANA 2

Abenduak 19 - 23

ZINE KLUBA:
BIRD
NAGUSIAK:
¿QUIÉN ES QUIÉN?
GAZTETXOAK:
SUPER KLAUS
(EUSKARAZ)

Abenduak 26 - 30

ZINE KLUBA:
AMAL
NAGUSIAK:
CUANDO CAE EL OTOÑO
GAZTETXOAK:
NIKO 3

FARMAZIA

ANDUAGA
San Lorentzo 3 / ☎ 943 78 21 16
Abenduak 9, 10, 18, 19, 24, 25, 27, 28 eta 29. Urtarrilak 7.

IGARTUA
Kale Zaharra 1/ ☎ 943 78 01 22
Abenduak 11, 12, 20, 21, 22 eta 30. Urtarrilak 6, 8 eta 9.

GARATE
Kale Barria 42/☎ 943 78 05 58
Abenduak 4, 5, 6, 13, 14, 15 eta 23. Urtarrilak 10, 11 eta 12.

ULDAIN
Kale Barria 6 / ☎ 943 78 11 28
Urtarrilak 7, 8, 16, 17, 26, eta 31. Urtarrilak 1, 3, 4 eta 5.

ODOL ATERALDIA

ABENDUAK 20 / 16:30-20:30
MU-ko Enpresagintza fakultatean. Aurrez, **https://gotatanta.eus** atarian har daiteke odola emateko txanda. Bestela, egunean bertan **943007884** zenbakira deituta.

MERKATU TXIKIA

INGELES IRAKASLEA Ingeleseko irakasle partikular bat behar dugu 5. mailako haur bati astean egun baten (ordu 1) eskolak emateko. Interesatuek deitu: 629 373 919

NEGOZIOA SALGAI Oñatiko estetika zentroa saltzen dut erretiroagatik. Herriko erdigunean kokatuta dago. Deitu: 943 78 01 46.

GARAJE ITXIA alokairuan ematen da San Martinen; 24,5 m²-ko garajea da. Deitu: 666 39 18 67.

KLASE PARTIKULARRAK Esperientziadun neska haurrak zaintzeko edota eskola partikularrak emateko prest. Goizez lehen orduak libre eta arratsalde gutziak. Deitu: 664 35 75 05.

MERKATU TXIKIA
ataleko iragarkiak dohainik dira.
kontzejupetik@onati.eus
943 78 20 72

Abendua

[a.βẽ.du] Izena

Argiz, elurrez eta festez betetako hilabetea: akatsak zuzentzeko, hasi zenuena amaitzeko eta zure nahiak egia bihurtzeko garaia.

amuebladora
mondragonesa

amuebladoramondragonesa.com

C/ Zigarrola 1, Arrasate (Gipuzkoa)